

—

INDARKERIA SEXUALAK

UNIBERTSITATEAN: AURRE EGITEKO PRESTAKUNTZA- GIDA



MARTA LUXAN SERRANO, JOKIN AZPIAZU CARBALLO, BARBARA BIGLIA (KOORD.)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Indarkeria sexualak unibertsitatean [Recurso electrónico]: aurre egiteko prestakuntza-gida / Marta Luxán Serrano, Jokin Azpiazu Carballo, Barbara Biglia (koord.). – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2018]. – 1 recurso en línea: PDF (62 p.)
Modo de acceso: World Wide Web.
ISBN: 978-84-9082-871-7

1. Mujeres - Violencia con - Prevención. 2. Mujeres víctimas de violencia. 3. Acoso sexual. 4. Universidades. I. Luxan, Marta, coed. II. Biglia, Barbara, coed. III. Azpiazu Carballo, Jokin, coed.

(0.034)364.63:378

(0.034)378.04

ISBN: 978-84-9082-871-7

Gidaren koordinatzaileak: Marta Luxan Serrano, Jokin Azpiazu Carballo, Barbara Biglia

Atalen autoretza:

Sarrera: Marta Luxan Serrano, Jokin Azpiazu Carballo, Mila Amurrio

Fitxa eta materialak: Jokin Azpiazu Carballo, Marta Luxan Serrano, Ainhoa Narbaiza Irizar, Barbara Biglia, Sara Cagliero

Diseinu eta maketazioa: Anemona Studioa
www.anemonastudioa.com

Oharra: gida honen edukiak 2018ko otsailean eguneratu dira azkenengoz. Posible da bertan dauden datu batzuk zein sarera doazen loturetako batzuk eguneratu gabe egotea horren ostean. Aldez aurretik barkamena eskatzen dugu horrek sortu ditzakeen buruhausteengatik.

Material hau Europar Batasunaren Eskubide, Berdintasun eta Hiritartasun programaren laguntzaz ekoiztu da. Materialaren edukiak, ordea, beraien egileen ardura dira eta ezin dira inola ere Europar Komisioaren iritziaren ordekaritzat hartu. USVreact proiektuaren kodea: JUST/2014/RDAP/AG/VICT/7401

Mila esker material honen oinarrian dagoen formazio eredu lantzen beraien ideia, ekarpen eta iritziekin lagundu ziguten norbanako zein kolektibo. Milesker halaber, formazioetan

SARRERA 04

- USVREACT PROIEKTUA 04
- GURE IKUSPEGIAREN INGURUKO OHARRAK 05
- MATERIALARI BURUZ 08

FITXAK 09

- FORMAZIO EREDUAREN ESKEMA NAGUSIA 10
- 01 BLOKEA: NOLA ERATZEN DIRA SEXU-INDARKERIAK UNIBERTSITATE EREMUAN 12
 - 1.1: FORMAKUNTZAREN SARRERA ETA AURKEZPEN-ERRONDA 14
 - 1.2: ZEIN DIRA INDARKERIA MATXISTAREN ADIERAZPENAK 16
- 02 BLOKEA: SEXU-INDARKERIAK ULERTZEA, TESTUINGURUAN JARTZEA ETA DEFINITZEA 18
 - 2.1: SEXU-INDARKERIAK ULERTZEA, TESTUINGURUAN JARTZEA ETA DEFINITZEA 20
 - 2.2: INDARKERIARI BURUZKO DEFINIZIOEKIN LANEAN 22
- 03 BLOKEA: SEXU-INDARKERIEI AURRE EGITEA 24
 - 3.1: NORK HASI DU MUGIMENDUA? 26
 - 3.2: ANTZERKI-FOROA 28
 - 3.3: ENTZUTE AKTIBOA ETA KOKATUA 30
 - 3.4: LEHEN ERANTZUNA: JARRAIBIDEAK ETA INFORMAZIO OROKORRAK 32
- 04 BLOKEA: UNIBERTSITATEAN SEXU-INDARKERIARI LEHEN ERANTZUN BAT EMATEKO TRESNAK, ZERBITZUAK ETA ESTRATEGIAK 34
 - 4.1: ETA HAU HEMEN GERTATU BALITZ? 36
 - 4.2: BALIABIDE -MAPA 38
 - 4.3: AMAIERA ETA EBALUAZIOA 40

MATERIALAK: 42

- ASMATUTAKO KASUAK 43
- ASMATUTAKO KASUEN ANALISIA 45
- BENETAKO KASUAK 50
- 1. BLOKEKO DIAPOSITIBA AURKEZPENAREN GIDA 52
- 2. BLOKEKO DIAPOSITIBA AURKEZPENAREN GIDA 54
- ANTZERKI FORORAKO GIDOIA 56
- ENTZUTE AKTIBO ETA KOKATUA: ABIAPUNTU KASUAK 57
- 3. BLOKEKO DIAPOSITIBA AURKEZPENAREN GIDA 58
- 4. BLOKEKO DIAPOSITIBA AURKEZPENAREN GIDA 61

GENERO INDARKERIA GIZARTE GUZTIARI DAGOKION ARAZO SOZIALA DA. ALOR HORREN INGURUAN GAUZATU DIREN IKERKETEK ARGU UZTEN DUTE INDARKERIA HORIEK EMAKUME ZEIN SUBJEKTU EZ NORMATIBOEI ERAGITEN DIETELA, BERAIEAN ADINA, KULTURA, KLASE SOZIALA ETA HEZIKETA MAILA EDOZEIN DELA ERE; HALABER, UGARIAK ETA ANITZAK DIRA INDARKERIA HORIEN TESTUINGURUAK. HORIETAKO BAT DUGU UNIBERTSITATE-EREMUA. UNIBERTSITATEAK BARNE-HARTZEN DUEN BIZTANLERIAREN INGURUAN EGIN DIREN IKERKETEK, BEREZIKI EREMU ANGLOSAXOIAN EGIN DIRENEK, ERASO SEXUALEN ETA GENERO INDARKERIAREN INDIZE OSO ALTUAK ISLATZEN DITUZTE. HALA ERE, BAI ESPAINIAN ETA BAITA EUROPAR BATASUNENK BESTE HERRIALDE BATZUETAN ERE, EZEZAGUNAK ETA OSO MUGATUAK DIRA EGOERA HORIEK PAIRATZEN DITUZTEN IKASLEEK IZAN DITZAKETEN BABES-ZERBITZUAK. MODU HORTAN, PROZEDURA INSTITUZIONAL ARGIEAN ETA BABES EGOKI BATEN GABEZIAK ERAGINDA, NABARIA DA INDARKERIA HORIEK JASATEN DITUZTENEN BIKTIMIZAZIO SEKUNDARIOA.

USVREACT PROIEKTUA

USVreact proiektua (Unibertsitate-eremuko indarkeria sexualen biktimei babesa: prestakuntza eredu egonkorak sortzen) bi urtetan zehar garatu dugun ikerketa-ekintza da, Europar Batzordearen Daphne III programaren aldi bereko finantzaketari esker inplementatu dena. Bere helburu nagusia izan da unibertsitate-eremuaren baitan jazotzen diren indarkeria sexualen prebentzioan eta abordatzean eragin positiboa izango luketen prestakuntzak diseinatu, gidatu eta ebaluatzea. Horretarako, hezkuntza-material espezifikoak diseinatzeaz gain, irakasleak, administrazioko langileak eta, zenbait kasutan, ikasleak trebatu ditugu, aipatutako indarkeriak pairatzen dituzten pertsonen lehen mailako arreta eskaintze aldera. Behar zehatzei erantzuneko dien errespetuzko hitzarmen duin eta sentikorra bermatzeko asmoz, garrantzitsua iruditzen zaigu indarkeria jasan dutenak aholkatzeko gai diren pertsonak egotea unibertsitate-komunitatearen baitan; erabakiak hartzeko prozesuan bidelagun izango diren pertsonak; unibertsitateko zein komunitateko baliabide eta zerbitzuez profitatu ahal izatea erraztuko dutenak; edota, hala nahi izanez gero, barne-prozedura edota prozedura judizialen bidea samurtuko dutenak ere. Gure ustez, formakuntza horiek ikusgarri egiten dute unibertsitate-eremuan jazotzen diren indarkeria sexualen intzidentzia. Era berean, berehalako arretatik haratago doan eztabaida ahalbidetzen dute. Izan ere, komunitate unibertsitario guztia barne-hartuko duen eraldaketa sakona bultzatzea dute azken helburu.

Europako sei herrialdeetako hamabi instituziok diseinatu dituzte formakuntza programak: Brunel University London, University of Sussex eta University of York (Britainia Handia). Universitat Rovira i Virgili, Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea (espainiar estatua), UNITO (Italia), eta Panteion Unibertsitatea (Grezia). Horietan guztietan inplementatu zituzten formakuntza saioak, baita beste zazpi instituzio-kidetan ere. Espainiar estatuan formakuntzaren proba pilotuak egin dituzte jarraian ageri diren unibertsitateetan: Universitat Autònoma de Barcelona (UAB), Universitat Pompeu Fabra (UPF), Universitat de Vic (Uvic), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP) eta Mondragon Unibertsitatea (MU).

Kontestualki eta kulturalki integratu zen prestakuntza programa bakoitza, ikerketaren aurreko fase

batean hautemandako praktika onen elementuak kontuan izanik. 2018ko otsailean ia 900 langilek jaso dute formakuntza 24 instituzio desberdinetan. Proiektuaren helburuetako bat da, hura amaitu ostean, formakuntza-materialak, modu irekian, publiko orokorraren eskura gelditzea, kontsultatu, aplikatu eta, jakina, eraldatu ditzaten.

Universidad Rovira i Virgilik (URV) eta Euskal Herriko Unibertsitateak diseinatu dituzten prestakuntza-materialak biltzen ditu esku artean duzun argitalpenak; eredu horien hedapenean laguntzea du xede.

■ NONDIK HELTZEN DIEGU INDARKERIA SEXUALEI? GURE IKUSPEGIAREN INGURUKO OHARRAK

Formakuntza eredu ororen oinarrian dago ikuspegi bat, lantzen ari garen gaira hurbiltzeko modu bat. Ezinbestekoa iruditzen zaigu gure abiapuntua zein den argi eta garbi adieraztea, formakuntzari zein ikerketari dagokionean. Azken urteetan generoarekin eta sexualitatearekin loturik garatu dituzten ikastaroen aniztasunak agerian utzi du ariketa hori gauzatzeko beharra. Azken finean, formakuntza-ereduaren hautaketa uztartuta dago landuko den gaiaren ikuspegiarekiko gertutasunarekin, bereziki, aukera zabala denean. Hori guztia kontuan izanik, ondorengo lerroetan adieraziko dugu indarkeria sexualen gaiari nondik heldu diogun eta formakuntza saioetan zehar nola garatu dugun.

Logikoa denez, indarkeria sexualen inguruan garatu ditugun ikuspegi asko erlazionatuta daude gauzatu ditugun beste proiektu batzuekin, izaera akademikoa edota aktibista dutenekin. Izan ere, genero indarkeriei buruzko argitalpenetan kolaboratu dugu, *El Estado de Wonderbra*-n (Virus Editorial, 2007), esaterako, eta baita ikerketetan ere, *GAP Work*-en (2013-2015) adibidez. Horietatik berreskuratu genuen “gender-related violence” nomenklaturarekin erlazionatzen dugun genero indarkerien nozioa, “gender-based violence” kontzeptuari (euskaraz “genero indarkeria”) konplexutasuna gehitzeko helburuarekin. Zergatik erabili termino hori? Aukera eskaintzen digulako indarkeria patriarkalenganako hurbilketa moduen artean erlazioa ezartzeko; oso maiz, elkarrengandik bereizitako modu gisa ulertzen baitira. Horren adibide dira emakumeen eta sexualitate edota genero adierazpen ez normatiboa duten pertsonen aurkako indarkeriak. Horrez gain, emakumeen kontrako indarkerien, homofobiaren, lesbofobiaren eta transfobiaren arteko elementu komunak aztertze bidea ematen digu. Azkenik, generoaren inguruan hausnartzea ahalbidetuko digun kontzeptua landu nahi dugu; generoa bera indarkeria gisa edo, gutxienez, hertsadura gisa, ulertzea ahalbidetuko duen kontzeptua, hain zuzen ere.

Proposamen sinplea dela edota zapalkuntza horiek guztiek komunen duten abiapuntua agerikoa dela pentsa dezakezue. Baina dirudiena baino konplexuagoa da, batez ere, indarkeriak ulertzeko modu hori gai praktikoetara itzultzerako orduan. Esaterako, heteropatriarkatuari buruz hitz egiten dugunean, binarismo tatxagabearen oinarritzen den sistema bati egiten diogu erreferentzia. Ukaezina den errealitate bezala jarduten eta aurkezten da binarismoa, naturalizat jotzen diren zenbait

ezaugarritan (kromosomak, gonadak, hormonak) oinarrituta, nahiz eta naturalitate horren inguruan eztabaida zabala sortu den. Binarismoa indartzen dute “sexua garunean dagoela” aldarrikatzen duten psikologia klinikoko ikuspegiak. Hori bera gertatzen da generoa ezaugarri “naturalen”, jokaera arauen, izaeraren eta rolen batura gisa ulertzen denean. Hau da, gure sexua eskusiboki onartu behar ditugun zenbait ezaugarriekin lotzen denean. Parekotasun ezean oinarritutako botere-harremanaren baitako posizioan dago gakoa. Izan ere, banaketa horretatik eratorritako harreman-sistemak ez du eraikitzen maila berean jartzea ahalbidetuko duen kategoriarik: desberdintasunak hierarkizatzen ditu. Hala, positiboki baloratzen dira generizatuta dauden zenbait ezaugarri; beste batzuk, aldiz, ez. Maskulinitatea ezartzen da gauza ororen neurri legez; feminitatea, berriz, hondar-kategoriara baztertzen da, baliorik gabeko posizio batera, “bestea” da.

Baina ezin gaitezke bertan gelditu. Sexuaren ideia biologistari eta genero kontzeptuari hirugarren elementu bat gehitu behar diogu: sexualitatea. Erreproduzioarekin loturiko gaiak daude gure kulturaren erdigunean; hala, ondo zehaztua dago “beste sexuko” pertsonengana mugatzen dela desioa, modu eskusibo eta iraunkorrean, eta, genero mandatuei jarraiki, bikote-rol egokian.

Elkarri eragiten dioten botere-ardatzen hiruki bat osatzen dute hiru elementu horiek (binarismo sexuala, genero hierarkikoa eta sexualitate normatiboa). Genero roletan oinarritzen gara sexuan pentsatzen dugunean, normatibitate sexualaren bitartez ulertzen ditugu genero rola eta erreproduziotik abiatuta eratzen da normatibitate sexuala. Haatik, testuinguru heteropatriarkal baten baitan, bizitza sozialaren konplexutasunaz arduratzeko ezinbestekoa da beste elementu batzuk ere kontuan izatea: arraza, klasea, gaitasuna, adinak... Horien guztien arteko interrelazioak eta eraginak geroz eta trinkoagoa den izartxo bihurtzen du hirukia, korapiloa bilakatuko dena, Lucas Platero-k *Intersecciones* lanean adierazten zuenaren arabera.

Genero- eta sexualitate-zapalkuntzen ikuspegi artikulatu eta interseksionaletik abiatu gara eragiten dituzten indarkeriak aztertzeko. Hori hainbat elementu zehatzetan egikaritu da:

- Indarkeria sexualak ez ditugu ulertu isolatutako elementu, jokabide desegoki edo pertsonen arteko ulermen arazo legez. Begirada heteropatriarkalaren adierazpen gisa ulertu ditugu; botere banaketa ekoizteko eta erreproduzitzeko funtzionatzen duten kontrol eta hertsadura mekanismo moduan. Ez ditugu sexualitatearen adierazpentzat jotzen, botere inposaketarekin baizik, gorputzean, afektuekin, desioarekin... lotura badute ere.

- Unibertsitate esparruaren baitan indarkeria horiek pertsona anitzengan duten eraginean pentsatzeko saiakera egin dugu, gure sexualitatea garatzeko moduari, bizi izatea egokitu zaigun gorputzei edota jaiotzean ezarri ziguten sexuari dagokionean. Zein espazio mota dira unibertsitateak? Zein motatako harremanak eraikitzen dira bertan? Nola eragiten du horrek indarkeriak konfiguratzeko moduan?

- Gai konplexua dela transmititu nahi izan dugu; zenbait momentutan guk ere bertigoa sentitu arren. Indarkeria sexualen inguruan hausnartzerako orduan, jokabide zerrenda batetik harantz

pentsatzera garamatza begirada interseksional horrek; prozesu konplexu gisa ulertzen ditugu guk eta garrantzitsua iruditzen zaigu horietan eragitea. Halaber, begirada komunitate guztira hedatzea eskatzen digu, “erasotzaile” eta “biktima”-tik haratago, erantzukizun kolektiboa aitortze aldera. Azkenik, egoera bakoitza aztertzea dakar, eraldaketa kolektiborako, ahalduntze feministarako eta desahalduntze patriarkalerako prozesuak sortzeko asmoz. Zalantzarik gabe, zeregin horren zailtasunetik dator aurrez adierazi dugun bertigoa.

- Indarkeriak har ditzakeen forma desberdinak mahai gainean jartzeko ahalegina egin dugu; hori dela eta erabiltzen dugu plurala indarkeria sexualei buruz hitz egiterako orduan. Ohiko indarkerien zein noizbehinkakoen kontzientzia hartu nahiko genuke; ikusgarrienak direnena eta baita hain ikusgarriak ez direnena ere; sozialki larritzat jotzen direnena eta, hutsalak izanagatik ere, mintzen jarraitzen duten, eta kontrol zein botere harremanen mantentze-efektua sortzen dutenena ere.

- Marko analitiko on bat ezartzea eta hura praktikara eramatea oso gauza ezberdinak direla jakinik, gogoan izan dugu tentuz azaldu beharreko ikuspegia dela. Badakigu hainbat hurbilpen erlatibismorako dei gisa uler daitezkeela, eta politika publiko zein mugimenduetan eragina dutela, “oso zaila denez, ezer egin ezin daitezkeela” uste izanagatik paralisia sortuz. Esperientzia interseksionalen konplexutasunaren aitortza uztartu nahi dugu, posizionamendu politiko feminista esplizitu, konprometitu eta ez neutrala baztertu gabe. Zentzu horretan, argi utzi nahi dugu ez dela gure asmoa orain arte lortutakoa gutxietsi edota baztertua; era berean, ez dugu emakumeei edota LGTBIQ pertsoneri zuzendutako politika zehatzen desagerpenaren alde egiten.

Auzi horiek guztiek mugatu dute formakuntza eta haren dinamikak antolatze modua. Eraldatu nahi dugun harreman-sistemak guztiok barne-hartzen gaituela ulertzen dugunez, pedagogia eta metodologia parte-hartzaileen aldeko apustua egin dugu; gugandik eta kolektiboarekin eta harentzat hitz egiteko asmoz, lantzen ari garen gaiaren konplexutasuna ahaztu gabe. Egoera anitz eta konplexuak azaltze aldera erabili ditugun fikziozko kasuek argi islatu dute gure begirada. Bukatzeko, unibertsitate esparruaren baitan eztabaida irekitzea ahalbidetuko duen formakuntza aukeratu dugu; indarkeria adierazpen zehatzei aurre egiteko balio duten mekanismo teknikoaren ezagutzaren inguruko transmisio hutsetik haratago joan nahi izan baitugu. Azpimarratu nahi dugu jarraian aurkeztuko ditugun jarduera eta eztabaiden bitartez eraldaketa sakon bati ekarpena egitea dela gure asmoa, indarkerien eta egonezinen kudeaketa hutsa gainditzeko helburuari jarraiki.

Ondorengo orrialdeetan barrena aurkituko dituzue problematikoak irudituko zaizkizuen ideiak; zenbait planteamenduk birpentsatzeko beharra dutela pentsatuko duzue; deseroso edota islatuta sentiaraziko zaituzten ikuspegiekin egingo duzue topo. Formazio hau erabiltzeko prozesuaren baitan zeuenganatu egin beharko duzue informazioa, aldatu, eraldatu; guk ere hala egin dugu hausnartzerako zein praktikara eramaterako orduan.

Bidaia on!

MATERIALARI BURUZ

Hurrengo orrietan zehar aurkituko dituzuen materialak Tarragonako Universitat Rovira i Virgiliko (URV) #USVreact lantaldearen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) arteko kolaborazio baten emaitza dira. Elkarrekin ekin genion materialaren elaborazioari, urrutitik dinamikak, ideiak, fitxak, kasuak eta kontakizunak... proposatuta, eztabaidatuta eta pentsatuta, parez pare geundeneko aukerak profitatuta, eta mezu zein dei asko trukaturik. Pixkanaka-pixkanaka, gustuko genuen formakuntza eredu bat eraiki genuen eta, gugan hainbat zalantza sortzen jarraitzen bazuen ere, martxan jartzea erabaki genuen, zalantza horiek argitzeko biderik onena hura zela uste genuen-eta.

Formakuntza martxan jarri ostean hasi ginen materialak eraldatzen. Lehenik eta behin, formakuntza ofizialki aitortua izan zedin eskaini behar genizkion orduak desberdinak ziren bi instituzioetan (10 ordu URVn, 8 ordu EHU). Hori dela eta, blokeen eta ariketen ordena birpentsatu behar izan genuen, zenbait dinamika aldatu... Ohikoa denez, praktikak zenbait zalantza argitzeko balio izan zigun, baina beste batzuk sortu ziren. Jaso genituen ebaluazioak eta gure behaketa-oharrak baliatuta, hainbat elementu moldatu genituen, multzoak hobeto funtziona zezan; izan ere, hori da ikerketa-ekintza batengandik espero dena. Beraz, apurka-apurka, bi formakuntza eredu definitzen joan ginen, elkarren artean antzekoak, baina, era berean, desberdinak, erro bera dutenak, baina berezitasun askodunak. Gida hau egiterako orduan, egokia iruditu zitzaigun bi ereduak aurkeztea, proposamen konplexu eta osoago bat eratzen baitute, formakuntza-prozesu oro bakarra eta berezia dela azpimarratuta. Hala, zuen behar, denbora eta lehentasunen arabera hautatzeko aukera eskaintzen dizuegu.

Lau bloke tematiko dituzte bi ereduak (nahiz eta horien ordena zertxobait aldatzen den batetik bestera) eta bietan erabiltzen ditugu fikziozko kasuak zein errealak parte-hartzaileekin lan egiteko abiapuntu gisa. Sekuentzian eta zenbait ariketetan (motzagoak, luzeagoak edota desberdinak) dago bien arteko desberdintasuna.

Eredu bakoitzaren hasieran aurki dezakezue sekuentziaren eskema, non zehazten diren bloke bakoitzaren helburuak, jardueren iraupena eta horiek gauzatzeko behar den materiala. Jarraian daude bloke bakoitzaren fitxak eta jarduerak.

Hurrengo atalean daude formakuntzarako sortu ditugun materialak, bi eruedetan komunak direnak eta bakoitzarentzat berariazkoak direnak bereizita.

Gogoratu sarean eskuratu dezakezuela material gehigarria, saioetarako diapositiba aurkezpenak edota gelan lan egiteko fitxak, esaterako. Jarraian ageri den loturan kontsultatu eta deskargatu dezakezue material hori: <http://usvreact.eu/eu/ehu-material/>.

/ FIT

XA

K /



FORMAZIO EREDUAREN ESKEMA NAGUSIA

01 BLOKEA

NOLA ERATZEN DIRA SEXU-INDARKERIAK UNIBERTSITATE-EREMUAN?

- UNIBERTSITATE ESPARRUAN GERTATZEN DIREN INDARKERIA SEXUALAK IDENTIFIKATZEA
- GAIAREKIKO ARDURA KOLEKTIBOA ETA ERAGILE EZBERDINEN INPLIKAZIOA ULERTZEA

JARDUERA	MIN.	HELBURUAK	METODOLOGIA	PRESTATU BEHARREKOAK
1.1 Formakuntzaren sarrera eta aurkezpen-erronda	30'	<ul style="list-style-type: none"> Ikastaroaren helburuak azaltzea Espazioa segurua izan dadin arauak adostea Parte hartzaileen artea lehen kontaktua egitea Gure ikastaroan parte hartzeko jendearen arrazoi nagusiak ezagutzea 	Diapositiba-aurkezpena eta aurkezpen-erronda	<ul style="list-style-type: none"> Diapositiba-aurkezpena 01
1.2 Zein dira indarkeria matxistaren adierazpenak, unibertsitatean?	80'	<ul style="list-style-type: none"> Indarkeria mota ezberdinen inguruan (ikusgarriak zein ikusezinak) hausnartzea Gure esperientziatik aboatuz hausnarketa bultzatzea 	Taldekako lana (30') eta horren ondoren elkarri kontatu eta eztabaida (35'), horretarako galdera batzuk eta dinamizatzaileen gidaritza jarraituz. Gai nagusien errepasoa (15') aurkezpen baten laguntzaz.	<ul style="list-style-type: none"> Asmatutako kasuak Galderak 01 Diapositiba-aurkezpena

02 BLOKEA

SEXU-INDARKERIAK ULERTZEA, TESTUINGURUAN JARTZEA ETA DEFINITZEA

- NORBANAKOEN ARTEKO ESKEMATIK HARANTZAGO JOATEA INDARKERIA SEXUALAK AZTERTZEAN
- INTERSEKZIONALITATEAREKIN ETA EGITURAZKO ZAPALKUNTZEKIN LOTURA DUTEN IDEIAK LANTZEA

JARDUERA	MIN.	HELBURUAK	METODOLOGIA	PRESTATU BEHARREKOAK
2.1 Sexu-indarkeriak ulertzea, testuinguruan jartzea eta definitzea	60'	<ul style="list-style-type: none"> Indarkerien inguruko begirada norbanakora ez murriztea Indarkeria sexualen eta beste diskriminazio moten arteko loturak irudikatzea Botere, zapalkuntza eta indarkeriari buruzko teoria feministen ekarpenetara gerturatzea 	Diapositiba-aurkezpena	<ul style="list-style-type: none"> 02 Diapositiba-aurkezpena
2.2 Indarkeriari buruzko definizioekin lanean	60'	<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitateetako protokoloa eta jarraibideetara gerturaten asteartea Arazoak definitzeko dugun modua eta haien aurrean egiten dugunaren arteko harremana aztertzea 	Taldekako lana (25'), definizio desberdinak aztertuz. Ondoren elkarri kontatzea eta eztabaida (35')	<ul style="list-style-type: none"> Definizioen bilduma Taldekako lan egiteko galderak eta taula dauzkan fitxa

03 BLOKEA

SEXU-INDARKERIEI AURRE EGITEA

- SEXU INDARKERIEI AURRE EGITEKO DUGUN ERA BIRPENTSATZEA
- ESKU-HARTZEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN IDEIA EZBERDINEN INGURUAN HAUSNARTZEA
- LEHEN ERANTZUNARI BURUZKO GOMENDIO BATZUK HELARAZTEA

JARDUERA	MIN.	HELBURUAK	METODOLOGIA	PRESTATU BEHARREKOAK
3.1 Nork hasi du mugimendua?	10'	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeari ongi etorria egitea • Formakuntzan zentratzea gure atentzioa etenaren ostean 	"Nork hasi du mugimendua?" Jolasa egingo dugu, nahi duenarekin	
3.2 Antzerki-foroa	40'	<ul style="list-style-type: none"> • Gure posizio propioetik abiatuz eztabaidatzea • Gure unibertsitateko lan-ohiturak aztertzea • Unibertsitatean aritzen den jende dena nola inplikatu pentsatzen hastea 	Hiru partaidek egoera bat antzeztuko dute. Talde osoak egoera hori interpretatu eta gidoia nola aldatu daitekeen proposatu dezakete (20'). Ondoren eztabaida egingo da (20')	<ul style="list-style-type: none"> · Antzerki-fororako gidoia
3.3 Entzute aktiboa eta kokatua	35'	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazio mailan erabiltzen ditugun moduak zalantzan jartzea • Parekoa eta ingurunea aintzat hartuko dituzten entzute moduak pentsatzea 	Hiruko taldeetan (kontakzailea, entzulea, kanpo-behatzailea), asmatutako kasu batzuk elkarri kontatuko dizkiogu (20'), ondoren elkarrekin gertatutakoaz hausnartuko dugu (15')	<ul style="list-style-type: none"> · Abiapuntu-esaldiak · Gomendioak
3.4 Lehen erantzuna: jarraibideak eta informazio orokorrak	35'	<ul style="list-style-type: none"> • Aurreko jardueretan agertu diren gai batzuk errepasatu eta borobiltzea • Indarkeria sexual egoerei aurre egiterako orduan egon daitezkeen muga eta zailtasunak irudikatzea 	Idea nagusiak biltzen dituen diapositiba-aurkezpena egin eta ondoren eztabaida eta zalantzak argitzea	<ul style="list-style-type: none"> · 03 Diapositiba-aurkezpena

04 BLOKEA

UNIBERTSITATEAN SEXU-INDARKERIARI LEHEN ERANTZUN BAT EMATEKO TRESNAK, ZERBITZUAK ETA ESTRATEGIAK

- GURE UNIBERTSITATE ESPARRUAK IKUSPEGI KRITIKOTIK BIRPENTSATZEA
- INDARKERIA SEXUAL KASUEI AURRE EGITEKO BALIABIDEAK EZAGUTARAZTEA

JARDUERA	MIN.	HELBURUAK	METODOLOGIA	PRESTATU BEHARREKOAK
4.1 Eta hau hemen gertatu balitz?	70'	<ul style="list-style-type: none"> • Gure ingurune gertukoan indarkeria sexualei aurre egiteko dauzkagun aukera eta mugak aztertzea 	Taldekako lana egin, benetan gertatutako kasuak aztertuz, galdera eta taulen bidez (30'). Ondoren elkarri kontatu eta eztabaida (40')	<ul style="list-style-type: none"> · Benetako kasuak · Taldeka lan egiteko galdera eta taulen fitxa
4.2 Baliabide-mapa	30'	<ul style="list-style-type: none"> • Unibertsitate barruan zein kanpoan eskura ditugun baliabideak ezagutzea • Behar duena ondo prestatuta dauden baliabidetara bideratzearen garrantziaz jardutea • Eragile ezberdinen sare-lanaren garrantzia azpimarratzea 	Diapositiba aurkezpenaren bidez mapa eta unibertsitate barruko baliabideak aurkeztuko ditugu	<ul style="list-style-type: none"> · 04 Diapositiba-aurkezpena
4.3 Amaiera eta ebaluazioa	20'	<ul style="list-style-type: none"> • Orain arte agertu diren ideien errepasoa egitea • Formazioa agurtzea • Parte-hartzaileen iritzia eta sentipenak jasotzea 	Ideien errepasoa egin eta ebaluaziorako galdera batzuk egin, talde osoak erantzuteko	<ul style="list-style-type: none"> · 04 Diapositiba-aurkezpena


NOLA ERATZEN

01 BLOKEA

SARPERA

DIRA SEXU- INDARKERIAK UNIBERTSITATE- EREMUAN?





Sexu-indarkeriak despareko botere-harremanek ezaugarritutako esparru baten adierazleak dira. Botere-harreman horiek hauek zedarritzen dituzte: sexismoak, genero-binarismoak, matxismoak, LGTBIQfobiak, zein horiek arrazismoarekin, klasismoarekin, kapazitismoarekin eta beste zapalkuntza-mota batzuekin eratutako harreman-sareek. Indarkeria horiek gizarte-eremu guztietan daude, beraz, baita unibertsitatean ere; baina ez dira modu berean azaleratzen ingurune guztietan. Horiek horrela, garrantzitsua da, formakuntza hasteko, gure unibertsitateetako indarkeria-adierazpenak zer osagaiz eratuta dauden hautematea.

Formakuntza hasteko, haren egitura eta oinarritzko irizpideak aurkeztuko ditugu, bai eta, formatzaile gisa, geure buruak ere. Halaber, parte-hartzaileen kezkak eta interesak entzungo ditugu formakuntzaren sarreran eta aurkezpen-errondan. Ondoren, hain zuzen ere “zein dira indarkeria matxistaren adierazpenak unibertsitatean?” izenburuko jarduera egingo dugu: abiapuntutzat, fikziozko kasuak aztertuko ditugu taldeka, gure inguru hurbilean gai hori nola ulertzen eta hautematen dugun pentsatzen hasteko.

NO
DIR
IND
UN
ERE



FORMAKUNTZAREN SARRERA ETA AURKEZPEN- ERRONDA (30 MIN)

NOLA?

Diapositiba-aurkezpena erabiliko dugu ikastaroaren egitura eta printzipio gidariak azaltzeko.

- Hala formatzaileak nola formakuntzaren jatorria aurkeztuko ditugu; hots, noren ekimenez egingo den, esku-hartzeko plan zabalago baten barruan kokatzen den...
- Gai korapilatsuak landuko ditugula gogoraraziko dugu eta, beraz, diskrezioa behar-beharrezkoa dela norbaitek kontu pertsonalak edo hurbilekoak kontatzen baditu.
- Formakuntza-eremua leku segurua izan dadin zer mekanismo erabiliko diren azaldu, eta formakuntza-gunea dela, ez terapeutikoa, argituko dugu.

Segidan, aurkezpen-erronda bat egitea proposatuko dugu (horretarako biribilean jarritako aulkietan eseriko gara), jende guztiak, labur, galdera hauei erantzun diezaien:

- Nor naiz eta nondik nator (zer zeregin dut unibertsitatean, kargu garrantzitsuren bat al daukat...)?
- Sexu-indarkeriei dagokienez, zerk kezkatzen nau edo ematen dit atentzioa bereziki?

Dinamizatzaileetako batek aurkezpen horiei buruzko oharra jasoko ditu. Taldearen argazki bat edukitzeko balioko digu horrek.

Jarduera amaitzeko, denei ongi etorria emango diegu, bertaratutako pertsonen interesen aniztasuna (askotarikoak izan ohi dira) azpimarratuta eta formakuntza lau bloketan egituratzen dela azalduta. Ondoren, lehen jarduerarekin hasiko gara.

FORMAKUNTZARI NOLA HELDU HURA PLANTEATZEKO MODUAREN ARABERAKOA IZANGO DA, ETA HAINBAT ERATAN EGIN DAITEKE HORI. ADIBIDEZ, EZ DA GAUZA BERA PARTE-HARTZEA BORONDATEZKOA EDO DERRIGORREZKO FORMAKUNTZA BATEKO PROGRAMAREN BETEBEHARRA IZATEA. ERAGINA IZANGO DU PARTE-HARTZAILEEK LEHENAGOTIK ELKAR EZAGUTZEAK –ADIBIDEZ, FAKULTATE BEREKOAK DIRELAKO– EDO EZ EZAGUTZEAK –DEIALDIA ZABALAGOA DELAKO– ERE. DENA DEN, HASI AURRETIK, GARRANTZITSUA DA GUTXIENEO KONFIANTZA-EREMU BAT SORTZEA.

HORRETARAKO, FORMAKUNTZAREN EGITURA, HELBURUAK ETA PRINTZPIO GIDARI BATZUK AURKEZTEA PROPOSATZEN DUGU.

ZERTARAKO?

Ikastaroa horrela hastea hauetarako da garrantzitsua:

- Guztiek ikastaroaren helburuak ezagutzen dituztela eta, ondorioz, zertara eta etorri garen eta zertara ez badakitela ziurtatzeko.
- Parte-hartzaileei, ahal den heinean, eremu seguru bat emateko.
- Elkar ezagutzen ez duten edo haien artean gaiari buruz hitz egin ez duten pertsonen artean konfiantza sortzeko.

KONTUAN HARTU JARDUERA EGITERAKOAN...

- Oso garrantzitsua da formakuntza-eremuak zein funtzio betetzen dituen eta zein ez argitzea. Ikastarora bertaratutako pertsonak ez dute beti hari buruzko informazio guztia jasotzen eta

baliteke batzuek formakuntza-eremuak emango ez dien zerbeit espero izatea. Beraz, hasieratik argi utzi behar dira kontu horiek.

• Aurkezpen-erronda bat egitea ez da kortesia-kontu hutsa. Besteak beste, formakuntzara etorritako pertsonen zer interesatzen zaien identifikatzeko aukera ematen digu. Informazio hori erabilgarria izango da taldea zer joeratakoa den hautemateko (eta, adibidez, hurrengo dinamikako kasuak horren arabera aukeratzeko), bai eta haren baitan izan litezkeen botere-dinamikak hautemateko ere: nor du asko hitz egiteko joera, nor geratzen da bigarren mailan... Hori aintzat hartu beharko dugu taldeak eratzeko eta bateratze-lanak dinamizatzeko.



JARDUERA PRAKTIKAN JARTZERAKOAN BURURATU ZITZAIZKIGUN IDEIA OROKORRAK ETA GOGOETAK

Unibertsitatean, beste erakunde batzuetan bezala, ez dago sexu-indarkeriaz hitz egiteko eremurik. Gure inguruan ez dira emakumeen eta beste subjektu ez-normatibo batzuen aurkako indarkeriarekin zerikusia duten gaiak landu nahi, isiltasunaren bidez betikotzen diren botere-harremanekin lotutako kontuak baitira. Halaber, zailtasunak ditugu sexu-indarkeriaz aritzeko, horien argitara, sexualitate heteronormatiboa gorputzak kontrolatzeko modutzat agertzen baita. Gaia lantzeko eremuen gabezia hori da, hein handi batean, sexu-indarkeriak inguratzen dituen isiltasunaren erantzuleetako bat. Arazoa ez da soilik jendeak gaiak ez hitz egitea, horrez gain, ez da nolabaiteko segurtasuna ematen duen eremurik proposatzen, epaitua, ebaluatua, auzitan jarria edo mindua izan gabe hitz egiteko. Horiek horrela, ohikoa da formakuntza-eremuak, egoerak uzten badu, konfidentzia-eremu eta zuzenean edo zeharka eragiten dituzten kontuez aritzeko gune ere bilakatzea. Zenbait unetan pertsona batzuek beren bizipenak gurekin partekatu dituzte, eta frustrazioa sentitu dugu ezin izan ditugulako aintzat hartu, hain zuzen ere, formakuntza-eremu batean gaudelako, denbora batzuk, jarduerak batzuk eta abar eskatzen dituen. Beraz, formakuntzaren helburuak aurretik argitzea erabaki genuen, mekanismo bat ezartzeaz gain, formatzaile batek formakuntzarekin aurrera egin bitartean besteak parte-hartzaileraren bati, behar izanez gero (larrituta sentitzen delako edo duela gutxiko egoerak gogoratu dituelako), arreta berezitua eman ahal izateko. Argi uzten dugu formakuntza ez dela gune terapeutiko bat: ondorioz, norbaitek egoera pertsonal bat kontatu nahi badu libre da egiteko, baina gutxieneko arretaz harago, ezingo dugu hartaz arduratu. Lehen mailako arretan aditua den kide batek azaldu zigun eran, hobe da kontu horiek aurretik argitzea, gero itxi ezingo ditugun ateak ireki ordez.

MATERIALAK

- [Ikastaroaren irizpideak eta egiturak jasoko dituzten diapositibak](#)
- Papera eta boligrafoa oharrek hartzeko
- Proiektagailua eta ordenagailua

1.2



ZEIN DIRA INDARKERIA MATXISTAREN ADIERAZPENAK, UNIBERTSITATEAN? (80 MIN)

JARDUERA HONEN BIDEZ UNIBERTSITATEAN SEXU-INDARKERIAK HARTZEN DITUEN ASKOTARIKO ADIERAZMOLDEETARA HURBILTZEN AHALEGINDUKO GARA. ZERGATIK DIOGU ASKOTARIKOAK DIRELA? HONELAKOAK IZAN DAITEZKEELAKO:

- > GEHIAGO EDO GUTXIAGO IKUSTEN DIRENAK
- > KONTUAN HARTZEN EZ DIRENAK
- > HAINBAT ONDORIO ETA ASKOTARIKO ERAGILEAK DITUZTENAK
- > INDARKERIAZTAT HARTUTAKOAK EDO GIZARTEAK JUSTIFIKATUAGOAK EDO KONTUAN HARTZEN EZ DITUENAK
- > PERTSONEK ERAGINDAKOAK, BAINA BAITA ERAKUNDEEK ERAGINDAKOAK ERE
- > PERTSONEN AURKAKOAK BAINA BAITA KOLEKTIBOEN ETA TALDEEN AURKAKOAK ERE
- > ETA ABAR

ZERTARAKO?

Era horretako dinamika bat egitea eta hura taldeka egitea hauetarako zaigu baliagarria:

- Ikastaroko kideak parte hartzera eta gogoeta egitera animatzeko.
- Gaira hausnarketa jakin bat oinarri hartuta hurbiltzeko, eta ez era abstraktuan.
- Ideia hau lantzeko: sexu-indarkeriak ez dira bortxaketei buruz dugun ohiko irudira mugatzen.

NOLA?

Parte-hartzaileak gutxienez hiru kideetako beste hainbeste taldetan banatuko ditugu. Horietan hitz egindakoa pertsona batek aurkeztuko du gainerako parte-hartzaileen aurrean, beraz, komeni da oharrak hartzeaz hura arduratzea. Talde bakoitzari kasuen sortan jasotako gertaeretakoko bat eta denentzat berberak izango diren galdera hauek emango dizkiogu:

- Nola definituko zenuke deskribatutako egoera eta zergatik?
- Nork parte hartu du kasu honetan? Zer portaera eta jarrera izan dute eta zer iritzi duzue horri buruz?
- Zer beste ohar bururatzen zaizkizue?

Talde txikitik 30 minutu eman ondoren, berriro talde handian jarriko gara bateraketa lanerako. Txandaka, talde bakoitzak bere kasua azalduko du eta, segidan, haiei buruz eztabaidatuko dugu (kasu guztiak batera eztabaida ditzakezue edo banan-banan, denbora kudeatzeko moduaren arabera).

Jarduera amaitzeko (nahiz adibide horiek eta eztabaidatik sortutako ideiak ikastaro osoan erabiliko ditugun), landutako kasuetara itzuliko gara. Diapositiba-aurkezpen bat erabiliko dugu hauek berrikusteko:

- Zer indarkeria-mota agertzen da zehazki kasu bakoitzean?
- Zer pertsona eta erakunde daude tartean?
- Jo al daiteke indarkeria-matxistatzat? Zergatik?
- Botere-egituren zer osagai azaleratzen dira kasu horretan?
- Zer tipifikazio legal luke, edukitezkotan?

KONTUAN HARTU JARDUERA EGITERAKOAN...

Dinamizatzaileen lana indarkeria matxisten askotariko adierazpenei buruz problematizatzea da, horien kausak erlatibizatu gabe. Eztabaida horietan kasuak indibidualizatzeko joera izaten da (“hori alderantziz gerta zitekeen”, “badira jazartzen duten emakumeak ere”...); beraz, garrantzitsua da indarkeria-adierazpenak despereko genero-harremanen eta beste zapalkuntza batzuen egitura-esparru baten ondorio gisa kokatzen lagunduko diguten argudioak eta adibideak edukitzea.

Baliteke ikasle batzuk zenbait adibiderek in identifikatzea eta lehen edo hirugarren pertsonan antzeko egoerak bizi izan dituztela aipatzea. Hala balitz, garrantzitsua da bizipen pertsonalei buruzko atalean aipatu ditugun egoerei aurre egiteko prestatuta egotea.

Interesgarria da, ahal baldin bada, hausnarketak hezuramaitzea: zer gertatzen zaigu eraso bat ezagutzen edo ikusten dugunean? Maiz, zerk eragozten digu erreakzionatzea? Garrantzitsua da hau ere aipatzea: egoera batzuetan ezikusiarrena egiten dugu edo gure kontua ez balira bezala jokutzen dugu, zergatik?

Oso lagungarria izango zaigu eztabaida nagusienei buruz eta haietako tirabira-puntuei buruz oharrak hartzea, etorkizuneko taldeetan gure dinamizazio-lana hobetzeko.



JARDUERA PRAKTIKAN JARTZERAKOAN BURURATU ZITZAIZKIGUN IDEIA OROKORRAK ETA GOGOETAK

Ohikoa da indarkeria matxistak indibidualizatzen dituzten ikuspegiak aurkitzea. Maiz, hau da unibertsitateetako protokoloek eta planek oinarrian izaten duten ideia: norbaitek uneren batean beste norbaiti eraso egin dio eta norbait horren aurkako neurriak hartu behar dira. Oso gutxitan begiratzen diogu argazki osoari, hainbat osagairi erreparatu ahal izateko. Egingo bagenu, hauek ikusiko genituzke: erakundeen utzikeriak eragindako indarkeria-egoerak daudela; egoera horietan nahastuta dauden pertsonengan eragina duten botere-harremanak daudela eta, beraz, ez garela ari portaera pertsonal hutsei buruz; botere-harreman horiek unibertsitate-bizitza osoari eragiten diotela eta, beraz, guztiok egiten dugunak zer ondorio dituen hartu behar dela kontuan, zerbait egiten dugunean edo isiltzen garenean; unibertsitateak eremu oso bereziak direla, botere-hierarkia jakinak dituztenak eta lehiakortasun- eta ekoizpen-prozesu liberaleko prozesuen parte direnak, eta ondorioz, erasoak eta gehiegikeriak gertatzeko eta isilarazteko eremu zehatzak eratzen direla haietan; askotariko indarkeriek (emakumeen aurkako indarkeria, indarkeria LGTBIfoboa...) uste duguna baino lotura estuagoa dutela batak bestearekin eta esparru berekoak direla ([2.1 dinamikan aztertuko dugu](#)).

MATERIALAK

- [Kasuen fotokopiak](#) eta [Kasuen analisisa](#)
- [Kasuei buruzko galderen fitxa](#), fotokopiak
- Proiektagailua eta ordenagailua
- [Diapositiba aurkezpena](#)
- Paperak eta boligrafoak

SEXU- INDARKERIAK ULERTZEA, TESTUINGURUAN JARTZEA ETA DEFINITZEA

Zenbaitetan, gutxienez paradoxikoa den egoera batekin topo egiten dugu: sexu-indarkeria mota batzuk negatibotzat hartu eta “portaera txartzat” gaitzesten diren arren, ez dago analisirik indarkeria horiek gertatzea eta, maiz, zigorrik gabe geratzea errazten duten egiturei eta

egoerei buruz. Horregatik, balio-sistema eta botere-banaketa bidegabe baten fruitu diren indarkeria horiek egiturazkoak direla azpimarratzen dute mugimendu feministek eta LGTBIQ mugimenduek. Unibertsitateetako sexu-indarkeriak ikuspegi indibidualizatzaille batean oinarrituta landu nahi ez baditugu (“norbaitek” “norbaiti” eragiten dion “arazo” bat), generoak, sexualitateak, genero-adierazpenak eta beste zapalkuntza-ardatz batzuek zedarritutako botere-harremanen konplexutasuna aintzat hartuko duten ulermen-markoak eduki beharko ditugu.

Bloke honetan indarkeria horiek testuinguruan jartzeko baliagarriak diren zenbait oinarritzko ezagutza ematen ahaleginduko gara, bai aurkezpenaren bidez, bai ondoren “sexu-indarkeriak ulertzea, testuinguruan jartzea eta definitzea” jardueran egingo den eztabaidaren bidez. Horrez gain, “indarkeriari buruzko definizioekin lanean” jardueran arazo honi helduko diogu: nola ulertzen eta definitzen dira indarkeria horiek zenbait unibertsitateko protokoloetan eta testuarautzaileetan?

2.1

SEXU- INDARKERIAK ULERTZEA, TESTUINGURUAN JARTZEA ETA DEFINITZEA (60 MIN)

LEHEN JARDUERA HONETAN OINARRIZKO ZENBAIT KONTZEPTUREN ETA EZAGUTZAREN BERRI EMANGO DUGU, GURE INGURUKO SEXU-INDARKERIAK ULERTU AHAL IZATEKO.

ZERTARAKO?

Ikastaroan une “teoriko” bat txertatzea hauetarako modu ona izan daiteke:

- Indarkeriei izaera indibiduala ematen dieten eta haien erantzukizuna pertsona jakinetan baino jartzen ez duten ikuspegiak saihesteko.
- Unibertsitate-eremuetan gertatzen diren sexu-indarkerien eta beste diskriminazio-mota batzuen arteko loturak egiteko.
- Botereari, abusuei eta indarkeriari buruzko analisi eta teoria feministen garrantzia nabarmentzeko.

NOLA?

Diapositiba-aurkezpena erabiliko dugu indarkeriari, generoari, interseksionalitateari eta zapalkuntzari buruzko ideia nagusi batzuk labur erreparatzeko. Gidatzat aurkezpen hori edukiko badugu ere, garrantzitsua da dinamizatzaile izan daitezkeen pertsonak ohituta egotea bai hartan azaltzen diren kontzeptuetara, bai, oro har, planteamendu feministetara.

Aurkezpena egin ahala geldialdiak egitea aholkatzen dugu, planteatutako kontzeptuak eta ideiak ulertzen ote dituzten eta horiekin bat egiten duten (edo ez) ikusteko. Bestela, aurkezpenaren ondoren eztabaida bat ere egin daiteke.

Jarduera amaitzeko, berrikusketa labur bat egingo dugu eta berriro zalantzak eta desadostasunak planteatzeko aukera emango dugu, baldin eta eztabaida amaigabeetara eramaten ez bagaituzte. Garrantzitsua da kontuan hartzea hurrengo jardueran protokoloak eta araudiei aplikatutako definizioen gaineko lan praktikoa egingo dugula, eta beraz, zalantza batzuk argitu ahal izango ditugula. Azkenik, gogorazi formakuntzaren bigarren saioaren hasieran zalantzak eta eskaerak egiteko tarteak utziko dugula, proposatutako zenbait ideia finkatu ondoren.

KONTUAN HARTU JARDUERA EGITERAKOAN...

• Arrunta izaten da proposatzen dugun ulermen-esparruak erresistentzia handiak sortzea. Izatez, ez dugu marko hori formakuntzaren hasieran azalduko, izan ere, gaitzespen handia sor dezake marko kritiko feministarekin bat egiten ez dutenen artean. Ohikoa da, hain zuzen ere, hitzak berak (feminista) formakuntzako parte-hartzaile batzuen gaitzespena eragitea, baita borondatez bertaratutako zenbaitena ere. Erresistentziak formakuntzaren atal honetan agertuko direnaz kontziente izateak horiei aurre nola egin aurretik erabakitzen lagunduko digu.

- Garrantzitsua da formakuntzan bi pertsonen arteko aurrez aurreko dialektikoak ekiditea. Pertsonetako batek etengabe interpelatu beharra sentitzen baldin badu, aretoan pertsona gehiago daudela gogorarazi behar dugu eta parte-hartzaileek ez dituztela proposatutako ideiak %100ean beren egin behar, baina formakuntzak iraun bitartean errespetatu eta kontuan hartu beharko dituztela.
- Zuzeneko aurrez aurrekoak saihesteko, bi formatzaile gaudenetan, txandaka erantzun diezaiekegu kritikei eta galderei. Taldeari ere galde diezaiekegu zer iritzi duen, ping-pong erako eztabaida batean kateatu ordez.
- Eskura adibideak edukitzea lagungarri izan dakiguke, bai eta taldeko beste pertsona batzuek adierazitako ideien eta bizipenen garrantzia nabarmentzea ere.



JARDUERA EGITERAKOAN BURURATU ZAIKIGUN IDEIA OROKORRAK ETA GOGOETAK

Gure portaeretan gizarte-egiturek norainoko eragina duten azpimarratzen duten kontuak planteatzea problematikoa izaten da: zenbait pertsona erasotua sentitzen da hori iradokitze hutsagatik. Definitzen eta mugatzen gaituen egitura-marko bat baldin badago, gure generoaren, arrazaren, klasearen, sexualitatearen eta abarren arabera pribilegioak kentzen edo ematen dizkiguna, non geratzen da banakotzat dugun askatasuna? Egungo gizarte kapitalistetan, izaerek eta identitateek norbere borondatearen emaitza diruditenetan, kosta egiten zaigu onartzea gure egoera bera botere-sare konplexu baten menpekoa dela. Zaila da gizon gehienek akademian duten kokapena beren pribilegio maskulinoaren fruitua dela onartzea, eta emakume askorentzat mingarria da egunero bizi dituzten diskriminazio-baldintzei buruz pentsatzea. Hala ere, garrantzitsua iruditzen zaigu, gure erantzukizuna eta gure ingurua zein gure buruak aldatzeko gaitasuna ukatu gabe, zenbait egoera egiturazkoak direla eta, beraz, irakurketa eta esku-hartze kolektiboak eskatzen dituztela azpimarratzea.

Bestalde, sexu-indarkeriak haien testuinguruan ulertzen lagunduko diguten interpretazio-markoak proposatzea ez da beti erraza izaten eta, maiz, zalantzak eta frustrazioak eragiten zizkigun formakuntzan. Alde batetik, garrantzitsua iruditzen zaigu genero-indarkeria (bikotearen/bikote ohiaren esparruko indarkeriatzat ulertuta) gaundituko lukeen marko bat eratzea, gayen, lesbianen edo trans*-en aurkako indarkeriak ere aintzat hartuko eta ulertuko lituzkeena; baina beste alde batetik, gehiegitan ikusi dugu nola analisi horiek era interesatuan erabili diren emakumeen aurkako indarkeriak erlatibizatzeke edo gutxiesteko. Horiek horrela, zalantzak zalantza, oraingoan ere sexu-indarkerien ideia hori zabaltzeko balioko duen eredu bat planteatu nahi dugu, emakumeen aurkako indarkeriak edo indarkeria LGBTBIQfobikoen berezitasunak ikusgai egiteko ibilitako bidea ezabatu gabe. Ahalegin horretan gure iritziak eta ideiak behin eta berriro ñabartu eta ñabartu behar izan ditugu. Momentuz, ez dugu beste konponbiderik aurkitu.

MATERIALAK

- [“Sexu-indarkeriak ulertzea, testuinguruan jartzea eta definitzea” diapositibak](#)
- [Diapositiben irakurketa-gida](#)
- [Proiektagailua eta ordenagailua](#)

2.2

INDARKERIARI BURUZKO DEFINIZIOEKIN LANEAN (60 MIN)

JARDUERA HONETAN, SEXU-INDARKERIA KASUETAN ZER EGIN ARAUTZEKO UNIBERTSITATEETAN ERABILTZEN DIREN DOKUMENTUETAKO DEFINIZIOAK LANDUKO DITUGU, PROTOKOLOETAKOAK, KASU. LITEKEENA DA UNIBERTSITATE GEHIENETAN SEXU-INDARKERIEN AURKAKO ARAUDI ESPEZIFIKORIK EZ EGOTEA, BAIZIK ETA GENERO-INDARKERIAREN EDO INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO ARAUDIAK EDUKITZEA -SEXU-INDARKERIA KONTUAN HARTZEN DUTENAK- EDO LANEKO JAZARPENARI BURUZKO ARAUDIAK EDO AKORDIOAK EDUKITZEA -SEXU-JAZARPENARI BURUZKO ATAL BAT DAUKATENAK-.

ZERTARAKO?

Testuetan indarkeria definitzeko moduetara hurbiltzea hauetarako izan daiteke lagungarria:

- Gure unibertsitateetako eta gure ingurukoetako protokolei buruzko lehen zantzuak edukitzeko.
- Arazoak definitzeko moduen eta martxan jartzen diren esku-hartzeen arteko loturak hautemateko

NOLA?

Hiru edo lau pertsonako taldetan banatuko gara (formakuntzan dagoen pertsona-kopuruaren arabera). Talde bakoitzari hauen definizioak jasotzen dituen testu bat emango zaio: sexu-indarkerienak/genero-indarkerienak/jazarpemotenak. [Definizio-sorta](#) bat prestatu dugun arren, onena gure erakundeetako edo bereziki garrantzitsuak iruditzen zaizkigunetako testuak aukeratzea da (hurbilekoak edo duela gutxikoak direlako, adibidez).

Talde bakoitzak 15 minutu izango ditu definizioak irakurtzeko eta hauek adierazteko:

- Nola ulertzen da indarkeria definizio horretan eta zer kausari egozten zaio?
- Definizioak bere baitan askotariko indarkeria-motak hartzen al ditu?
- Inklusiboa al da; hots, bere baitan unibertsitate-komunitateko askotariko pertsonak eta kolektiboak hartzen al ditu?
- Indarkeriaren definizioak ikuspegi interseksionala al dauka?
- Problematikoak edo aipagarriak iruditzen zaizkien beste alderdi batzuk.

Hamabost minutu horiek iragaten direnean, beste hogeita bost izango ditugu talde bakoitzean ateratako kontuak bateratzeko. Talde bakoitzak testu bat landu duenez, garrantzitsua da horiek proiektagailuaren pantailan edukitzea, eztabaida osoan ikusgai egon daitezen. Aurreko jarduera luzatu baldin bada eta denbora gutxi baldin badaukagu, talde guztiek testu bera azter dezakete; horrela, bateratze-lana laburragoa izango da.

Jarduera amaitzeko, kontu garrantzitsuenak berrikusiko ditugu, bereziki, gure unibertsitateko protokoloetan. Egokia iruditzen bazaigu, protokoloaren testua bana daiteke, nahi duenak etxean arreta handiagoz irakur dezan.

KONTUAN HARTU JARDUERA EGITERAKOAN...

• Protokoloetan erabiltzen diren definizioak auzitan jartzeak ez du esan nahi definizio itxia eta behin betikoa eman nahi dugunik. Garrantzitsua da adieraztea, ziur asko, edozein

protokolotako definizioek utziko dutela konturen bat jaso gabe, indarkeriak definitzea prozesu irekia dela, indarkeriak prozesu dinamikoa direlako eta gaur nahiko erraz defini dezakeguna bihar beste modu batera azaleratzen delako.

- Beraz, jarduera honen oinarrian dagoen ideia ez da protokoloetan zer gaizki definitzen den agerian jartzea, bazik eta problematikak definitzeko proiektu irekien eta partaidetzazkoen beharra planteatzea, horiek hurbiletik bizitzen dituztenei entzungo dietenak eta lekuko testuinguruak kontuan hartuko dituztenak.
- Interesgarria da protokolo gehienek elkarren antz handia dutela azaleratzea. Horrek berak adierazten digu partaidetzazko prozesuak falta direla, testuinguruaren arabera egindakoak.
- Kasu askotan argi ikusiko da hainbat protokoloren eta araudiren jatorria. Adibidez, jazarpen-protokoloak, gehienetan, laneko jazarpenaren aurkako araudien egokitzapenak dira, eta horietako hizkuntza zailki estrapola daiteke unibertsitate barruko beste komunitate batzuetara (ikasleak).



JARDUERA EGITERAKOAN BURURATU ZAIZKIGUN IDEIA OROKORRAK ETA GOGOETAK

Hizkuntza juridikoak eragin handia dauka genero-indarkeriari eta jazarpenari aurre egiteko unibertsitateek dituzten jarduera-protokoloetan, eta horietan aurkitzen ditugu normalean sexu-indarkeriaren aipamenak. Enfasi handia jartzen da zigor-neurrietan (gainera, maiz, ez dira aplikatu ere egiten), gertatutakoa determinatzeko eta ebaluatzeko moduetan (egiazkotasuna emateko edo ez emateko), eta indarkeria jasan duten pertsonen eragindako kalteen ebaluazioan. Horren ondorioa da protokoloetako definizioek oso gutxitan diruditela indarkeria oso jakinen katalogoa besterik. Maiz, oso zaila da horietan identifikatzea, indarkeria-egoerak bizi izan dituztenen ikuspegitik ere ulertezinak eta kontraesankorrak direlako. Emakumea baldin banaiz eta nire lankideak intelektualki mesprezatzen banau eta, aldi berean, mezu sexualak bidaltzen badizkit, zer da, sexuagatiko jazarpena edo sexu-jazarpena? Nire bikote ohia unibertsitatera hurbiltzen baldin bada eraso egiteko asmoz, urruntze-agindu bat baldin badauka ere, eta nire fakultatean inork ez baldin badaki zer egin, prozedurarik ez dagoelako, genero-indarkeria jasaten ari naiz: baina nola esaten zaio ezikusiarrena egiten duen erakundeak egiten duenari? Maiz zigor-ikuspegi horrek (“gertaera jakin bat bilatu, gertatu dela frogatu, erruduna zigortu”) itsutzen gaitu eta horrek ez digu kaltetua laguntzen eta babesten uzten, eta are gutxiago indarkeria ager dadin prebenitzen.

MATERIALAK

- [Askotariko protokoloetako eta araudietako definizioen kopiak](#)
- [Diapositibak, bateratze-lanerako definizioekin](#)
- Proiektagailua eta ordenagailua

Ez dira gauza bera sexu-indarkeriei edo beste indarkeria matxista batzuei erantzuteko zerbait egin nahi izatea eta egin ahal izatea. Sarri, ez daukagu oso argi zer egin, beste batzuetan zerbait egin nahi dugu baina elementuren batek eragotzi egiten digu eta, zenbaitetan, zer egin argi daukagun arren zerbait horrek ez du espero bezala funtzionatzen. Garrantzitsua da unibertsitatean aurki ditzakegun egoeren aurrean erreakzionatzen jakitea baina, horrez gain, garrantzi bera dauka gauzak nola egin pentsatzeko denbora hartzeak, emaitza onak bermatuko dizkigun formula magikorik ez dugula aurkituko jakinda.

Hirugarren blokean gai horiei buruz hausnartzeari ekingo diogu. Hasteko, jolas bat egingo dugu, formakuntza-eremuan kokatzen lagunduko diguna. Segidan, antzerki-foro bat egingo dugu, gure unibertsitatean sor litezkeen egoeretan esku-hartzeko edo ez esku-hartzeko motibazioak aztertzeko. Entzute aktibo eta kokatua landuko dugu gero eta, azkenik, “lehen erantzuna: jarraibideak eta informazio orokorrak” aurkezpenaren bidez, eraso bati aurre egiteko kontuan hartu behar ditugun zenbait kontu garrantzitsu erreparatuko dugu.



SEXU- INDARKERIE

AURRE

EGITEA





NORK HASI DU MUGIMENDUA? (10 MIN)

**FORMAKUNTZAREN BIGARREN SAIOA
HASTEKO JOLAS BAT EGITEA PROPOSATZEN
DUGU.**

ZERTARAKO?

- Parte-hartzaileei (eta gure buruari) jolas erraz baten bidez lasaitzen laguntzeko.
- Parte-hartzaileen energia formakuntzan zentratzeko, hasi baino minutu bat lehenago buruan generabiltzan kontuak alde batera uzten lagunduta.
- Formakuntzaren beste une batzuetan erabilgarriak izan dakizkigukeen zenbait elementu txertatzeko.

NOLA?

Parte-hartzaileak biribilean jarriko dira. Aukeratu kide bat aretotik irteteko. Taldeak beste pertsona bat hautatuko du, mugimendua hasteko ardura izango duena; orkestra zuzentzekoa, hain zuzen. Pertsona horrek mugimendu bat hasiko du (eskuak astintzea kasu) eta gainerako pertsonak berdin egin beharko dute. Orkestraren zuzendariak mugimendua aldatzen duen bakoitzean (eskuak astintzeri utzi eta burua mugitzen hastea, adibidez), gainerakoek berdin egin beharko dute.

Mugimendua martxan dagoela, kanpora atera den pertsonari sartzeko eta zirkuluaren erdian jartzeko eskatuko diogu. Kokapen horretan, birak eman beharko ditu eta adi egon beharko du, orkestra nork zuzentzen duen asmatu arte. Jarduera pare bat aldiz edo hiru aldiz errepika daiteke nahi bada. Horretarako, orkestraren zuzendaria izango da kalera irteten hurrengoa, harrapatzen dutenean, eta jolasa berriro hasiko da.

Jarduera amaitzeko, parte-hartzaileekin komentatuko dugu, era informalean, ea jarduera erraza edo zaila iruditu zaien. Aulkietara itzuliko gara eta ondoren egingo ditugun jarduerak azaltzen hasiko gara, aurkezpenaren laguntzaz.

KONTUAN HARTU JARDUERA EGITERAKOAN...

- Gorputza erabiltzea eskatzen duten jarduera ugarik oso deseroso sentiarazten ditu pertsona batzuk eta, beraz, emaitza esperotakoaren aurkakoa izan daiteke. Jarduera hau aukeratu dugu erraza delako eta ez duelako besteak ukitzea eskatzen, maiz deserosotasuna sortzen duena.
- Ondorioz, garrantzitsua da jardueran den-denek parte hartzean ez tematzea. Norbaitek egin nahi ez duela adierazten badu, ez tematu, esan hamar minutu baino ez dituela iraungo.

- Hurrengo jardueran eta blokeko beste une batzuetan jolasera joko dugu berriro ere, bereziki, pertzepzioa lantzen dugunean; izan ere, jolasak horixe azpimarratzen du, errealitateak kokatuta gauden lekuaren arabera hautematen ditugula. Zirkuluaren erdian gaudenean ezin ditugu bizkarraldean dauzkagun pertsonak ikusi eta, beraz, ez zaigu erraza izango orkestra nork zuzentzen duen asmatzea.



JARDUERA EGITERAKOAN BURURATU ZITZAIZKIGUN IDEIA OROKORRAK ETA GOGOETAK

Unibertsitateetako genero-indarkeriak hautemateko gure moduan eragin handia dauka haietan dugun kokapenak (fisikoak eta sinbolikoak). Maiz ikusi dugu zenbait irakaslek edo administrazioko langilek frustrazioz bizi duela ikasleei gertatzen zaizkien zenbait egoera ezin hautematea horiek oso nabarmenak izan arte, adibidez, indarkeria fisikoa agerikoa izan arte. Baina, kontua da unibertsitate-komunitatea eratzten duten pertsonak haren barruko eremu oso desberdinetan dabiltzala. Apenas dagoen ikasleak eta irakasleak elkarrekin egoteko tokirik, haien arteko botere-harremanek eragin handia ez duenik. Zenbait ekimenek hainbat kolektibotakoak izanik interes komunak dituzten pertsonak elkarrengana hurbiltzeko aukera ematen dute, hala nola gizarte-mugimenduek, sindikatuek edo gaikako jardunaldiek. Gainerakoan, ikasleak eta irakasleak bananduta daude unibertsitatean eta gauza bera gertatzen da irakasleen eta administrazioko langileen artean zein horien eta garbiketan eta beste zerbitzu batzuetan azpikontratatuta lan egiten duten pertsonen artean. Ondorioz, ohikoa da unibertsitatean gertatzen ari dakigukeenaren gehiengoa ez hautematea, izatez, batuk besteari bizkar ematen baitiogu edo elkarren arteko komunikazioa eragozten diguten maila desberdinetan (hierarkietan) baikaude. Gakoa da bai unibertsitate-komunitatearentzako elkarguneak, bai hierarkia-harremanak leunduko dituzten mekanismoak pentsatzea, sexu-indarkeria matxistak hautematen eta entzuten jakingo duen unibertsitate bat pentsatzeko.

3.1



ANTZERKI- FOROA (40 MIN)

AURREKO JOLASARI ESKER GIRO LASAIAGOAN EGONGO GARA; ZIUR ASKO, BARRE ERE EGINGO GENUEN. UNE EGOKIA DA TEATRALIZAZIOAREN BIDEZ HAUEK GOGOETAGAI HARTZEKO: BATETIK, GURE LAN- ETA IKASKETA-INGURUNEAK, ETA BESTETIK, NOLA ERAGITEN DUEN ZENBAIT ELEMENTUK, PROBLEMATIKOTZAT JOTZEN DUGUN (EDO EZ) ZENBAIT EGOERAREN AURREAN ERREAKZIONATZEKO EDO EZ ERREAKZIONATZEKO.

ZERTARAKO?

- Zenbait elementu teatralizatzeak eztabaidari bide egin diezaioke, eta haren bidez, hurbilekoa zaion puntu batean koka dezake gaia parte-hartzaile bakoitzak.
- Aukera emango digu unibertsitatearen barruko lan-kulturak eta horiek landutako gaiarekin zer lotura duten aztertzeko.
- Arreta osoa indarkeria jasan duten pertsonengan ez jartzeko aukera emango digu, besteok zer egiten dugun eta indarkeriak pertsonalki eta kolektiboki gudan zer eragin duen pentsatzeko.

NOLA?

Hiru boluntario eskatuko ditugu fikziozko egoera bat antzezteko. Normalean erraz lortzen dira parte-hartzaileak, baina norbait falta bazaigu, formatzaileraren bat sar daiteke taldean. Hiru pertsona horiek aretotik irtengo dira eta antzeztu behar duten egoera emango eta azalduko zaie ([erantsitako fitxan](#) aurkituko duzuen balizko indarkeria-egoera baten berri emango zaie). Bost minutu izango dituzte paperak banatzeko eta antzezpena nola egingo duten pentsatzeko (antzezteko oso egoera erraza izango da).

Aktoreak ikasgelara itzuliko dira eta, azalpenik eman gabe, egoera antzeztuko dute. Ondoren, parte-hartzaileen arteko eztabaida-foroa hasiko dugu: galdetu beren ustez zer gertatu den eta zer elementu egon diren tartean. Hemen dituzue eztabaida gida dezaketzen zenbait galdera:

- Zuen ustez, zer posizio dauka pertsonaia bakoitzak unibertsitatean? Zenbat denbora daramate unibertsitatean eta noiztik daude postu horretan?
- Zer erreakzio izan du narrazioa entzun duten bi pertsonetako bakoitzak? Zer ondorio ditu erreakzionatzeko modu bakoitzak? Zuen ustez, zein izan daiteke arriskutsuena?
- Zer dakite gertatutakoari buruz? Zerk eragozten die gehiago jakin nahi izatea? Zerk sortzen die konfiantza eta zerk mesfidantza?
- Gure lan- eta formakuntza-inguruek laguntzen al digute irakaskuntzatik eta kudeaketatik harago dauden kontuetan inplikatzeko?
- Zer eragin dute lehia-dinamikek unibertsitate barruan eta zer eragin du meritokraziak zenbait kontu hautemateko gure moduan?
- Parte-hartzaileek ba al zekiten zer egin zezaketen? Ba al zuten aurrez ezarritako pistaren bat edo mekanismoren bat?

Talde osoak aldi berean eztabaidatuko du, lehenengo, antzezpenean aktore-lanak egin ez dituztenei hitza hartzeko aukera emanda. Noski, antzezpenean parte hartu dutenek ere eman ahal izango dute beren iritzia eta hausnartu ahal izango dute egokitu zaien paperak zein neurritan ordezkatzeko dituen. Nahikoa denbora baldin badago (eta egon ohi da), pertsonaiek zer beste modutan erreakziona zezaketen planteatu, eta antzezpenean taldean errepika daiteke, pertsonaiei paperean aldaketak proposatu dituztenak jarrita.

Jarduera amaitzeko, aipatutako gaiak labur berrikusiko ditugu, hauek azpimarratuta: nahiz eta zenbait ideia oso argi eduki eta borondate onekoak izan, ez dugu beti erreakzionatzen eta, beraz, garrantzitsua da kontu horiek era kolektiboan lantzea.

KONTUAN HARTU JARDUERA EGITERAKOAN...

- Baliteke parte-hartzaile batzuk deseroso sentitzea proposatutako egoerako pertsonen paperak antzezten, pentsa baitaiteke ez dutela ezer egiten gauzak aldatzeko. Beraz, garrantzitsua da kontua desdramatizatzea, eta ikuspegi indibiduala (“egoera bidegabe bati aurre egiten diozu bidezko pertsona zarelako”) kolektibo bilakatzea (“zergatik ez dugu erreakzionatzen?”), hala, parte-hartzaileei adierazteko, kontua ez dela erreakzionatzen (ez) duten pertsonak epaitzea, baizik eta gogoetagai hartzea zer baldintzen ondorioz erreakzionatzen dugun edo ez dugun egiten.
- “Zer egingo zenuke... gertatuko balitz?” galdetzen digutenean, erantzun automatiko bat ematen dugu, eta ez da guztiz zintzoa izaten. Berez, zerbait egin nahi dugunetan blokeatu egiten gara, beldurtu egiten gara, nagitu egiten gaitu egoera erraz ez konpontzeak, ez dugu biktimarekin bat egiten... Formatzaileen jarrerak zintzoa izan behar du eztabaida horretan: guretzat ere zaila da erreakzionatzea, zalantzak dauzkagu eta damu gara egoera batzuetan ezer ez egin izanaz. Konponbideen jabe garen pertsonatzat ez agertzeak gainerako parte-hartzaileak ere zintzotasunez aritzea erraz dezake.



JARDUERA EGITERAKOAN BURURATU ZAIZKIGUN IDEIA OROKORRAK ETA GOGOETAK

Unibertsitateak lantoki berezia dira, harreman-dentsitate handiko departamentuetan eta bulegoetan banatuta dauden egitura handiak. Lan-kulturak, oro har, eta unibertsitatekoa bereziki, asko eraldatu dira azken urteetan. Ez da nahikoa iritsi, gure lana egin eta ateratzea. Gure kideekin ditugun harremanekin lotuta, nolabaiteko exijentzia-maila bizi dugu eta, horrekin batera, auto-esplotazioa, meritokrazia, elitismoa eta langileen arteko espioitza. Dударik gabe, gizatasunik gabeko egoera bat. Zurrumbilo horretan, gure lanaren barruan edo borondate on hutsez sexu-indarkerietan arreta jar dezakegula pentsatzea oso inuzentea da. Kontua ez da soilik “kontzientziaztea eta indarkeriei aurre egiten jakitea”, baizik eta indarkeria horrek unibertsitatean sortzen duen diskriminazioari eta indarkeriei aurre egitea behar kolektiboa dela aitortzea eta, beraz, prozeduren, aurrekontuen, denboraren, langile trebatuen eta abarren bidez barneratzea. Dena den, indarkeriaren aurrean izango dugun lehen erreakzioari edo erantzunari lotuta, garrantzitsua da gure estatusak gudan zer eragin duen hausnartzea.

MATERIALAK

- [Esenaren argumentua eta pertsonaiak jasotzen dituzten fitxak](#)
- Papera eta boligrafoa, formatzaileentzako



ENTZUTE AKTIBOA ETA KOKATUA (35 MIN)

JARDUERA HONEN BIDEZ, EGOERA JAKIN BATEAN KOKATUKO GARA, ETA ENTZUTE-JARDUERARI ZENBAIT ELEMENTU BEREZI ERANTSIKO DIZKIOGU, SEXU-INDARKERIEKIN ETA BOTERE-HARREMANEKIN ZUZENKO LOTURA DUTENAK.

ZERTARAKO?

- Lehen pertsonan edo hirugarren pertsonen bidez kontaktzen zaizkigun indarkeria-egoerak entzuteko hartzen dugun jarrera auzitan jartzeko.
- Parean dugun pertsonaz gain, testuingurua kontuan hartzen duten entzuteko moduez gogoetatzeko.

NOLA?

Hiruko taldetan jarriko gara (parte-hartzaile bakoitzak rol bat izango du jardueran) eta bakoitzeko pertsona batek [egoera-sortan](#) planteatutako kasuetako bat kontatuko du. Egoerak oso eskematikoak dira, beraz, animatu narratzaile lanetan ari direnak gauzak eranstera eta inprobisatzera. Lehenengo horrek bigarren pertsonarengana joko du bere narrazioa kontatzeko, beraz, hark entzun egin beharko dio eta, noski, hitz egiteko eta galderak egiteko aukera ere izango du, elkarrizketa arrunt batean egiten den eran. Hirugarren pertsonak ezingo du parte hartu, bere lan bakarra egoerari erreparatzea izango da, esperimentu bat balitz bezala. Pertsona behatzaile horri [fitxa bat](#) eman diezaiogegu, arreta zer elementutan jar dezakeen jasoko duena. Hamar minutu izango dituzte horretarako.

Jarduera amaitutakoan, talde handira itzuliko gara eta han, behatzaile-lanak egin dituzten pertsonen ikusitakoa kontatuko dute.

- Entzutearen zer alderdi hartu dira kontuan?
- Zer alderdi ez dira nahikoa zaindu?
- Narratzailea uneren batean deseroso sentitu al da, auzitan jarri dutela sentitu duelako?
- Uneren batean eten al da komunikazioa?
- Entzuten ari zenak asmatu al du laguntzaren bat ematen, narratzailea nolabait eroso sentiarazten?

Eztabaidan aurrera egin ahala, entzutearen hainbat alderdi aletu eta auzitan jarriko ditugu. Garrantzitsua da azpimarratzea jarduera honetan ez dugula edozein kontakizun entzuten. Sexu-indarkeriarekin lotutako bizipen bat kontaktzen ari zaizkigu eta, beraz, inguruko egitura-elementuak ere kontuan hartu behar dira, hurrengo jardueran azalduko dugun eran.

Jarduera amaitzeko, aipatu zuzeneko zerikusia duela ondoren egingo dugun aurkezpenean landuko ditugun eta, beraz, birpentsatuko ditugun zenbait konturekin.

KONTUAN HARTU JARDUERA EGITERAKOAN...

· Egoeren antzezpenean eragina dauka zer ingurunetan gauden, eta baliteke talde batzuen antzezpenak oso zuzenak izatea eta entzute aktiboari aurreuposatzen zaizkion printzipioekin bat etortzea. Horiek horrela, garrantzitsua da egoera “errealistenak” eta ez hain zuzenak antzestu dituzten taldeei erreparatzea, joko handiagoa emango baitigute.



JARDUERA EGITERAKOAN BURURATU ZAIZKIGUN IDEIA OROKORRAK ETA GOGOETAK

Entzute aktiboa oso modan dago eta guztiok entzun dugu noizbait ari buruz hizketan. Gehiegitan, aldaketarako ahalmena izan duten ideiak erabiltzen dira, berreskuratuta eta neutralizatuta, inolako irakurketa kritikorik gabe. Horregatik gustatzen zaigu entzute aktiboaz eta kokatuaz aritzea. Entzute aktiboak parean daukaguna aintzat hartzen du; entzute kokatuak, horrez gain, entzuten eta hizketan zer testuingurutan ari garen kontuan hartzen du. Testuinguru hori, esan bezala, desporeko botere-harremenez eratuta dago, eta generoak, sexualitateak, klaseak, arrazak... baldintzatuta. Egoera horietan, era aktiboan entzutea ez da soilik isiltasunak errespetatzea, enpatia agertzea eta gure gorputzaren bidez entzuteko borondatea adieraztea. Hauek ere esan nahi ditu: parean daukagunaren hitza zalantzan ez jartzea, sexu-indarkeriez aritzean emakumeen hitza etengabe zalantzan jartzen dela kontuan hartzea (eta akats hori ez egitea), hitz egiteko pausoa ematearen zailtasunaren fede ematea, sexu-indarkeria bizi izan dutenak egoera horren erantzule edo errudun ez bilakatzeko kontuz ibiltzea... Hau da, era aktiboan entzutea, elementu horiek guztiak erantsita.

MATERIALAK

- [Narratzaileentzako kasuak jasotzen dituzten fitxak](#)
- [Behatzaileentzako fitxak](#)
- Formatzaileentzako papera eta boligrafoa

3.4

LEHEN ERANTZUNA: JARRAIBIDEAK

ETA INFORMAZIO OROKORRAK (35 MIN)

JARDUERA HONETAN BLOKE OSOAN AZALDUTAKO KONTUETAKO UGARI BERRIKUSIKO DITUGU ETA AMAIERA ORDENATU BAT PROPOSATZEN SAIATUKO GARA. LABURPEN HAU EGITEKO, SORTZEN AHOLKULARITZA-ENPRESAKO NORMA VAZQUEZEN LAGUNTZA IZAN DUGU.

ZERTARAKO?

- Kontzeptu batzuk argiago utziko ditugu haiek ordenatuta.
- Indarkeriei erantzuteko zer gabezia dauden eztabaidatuko dugu.
- Gaiari adituak diren feministen ezagutzak transmitituko dugu.

NOLA?

Sexu-indarkeriei lehen erantzuna emateko kontuan har daitezkeen eta hartu behar diren hainbat elementu planteatuko ditugu, bost bloketan: hautematea, entzutea, zaintzea, laguntzea eta ebaluatzea. Horretarako, [3. blokeko diapositibak aurkezpena](#) erabiliko dugu: aurretik, [aurkezpeneko gida](#) irakurriko dugu eta gertu edukiko dugu gero ere. Aurkezpenak iraun bitartean, tartekak utziko ditugu ahal den guztietan, zalantzak argitzeko eta galderak egiteko; hala ere, litekeena da gaietako asko (ez denak) unerren batean lehenago aipatu izana.

Jarduera amaitzeko, hurrengo blokeari bide egingo diogu eta bost minutuko atsedendia egingo dugu (ahal bada).

KONTUAN HARTU JARDUERA EGITERAKOAN...

- Baliteke, sexu-indarkeriei aurre egiteko moduei buruz hitz egiterakoan eta hartarako aholkuak berrikusterakoan, pertsona batzuek noizbait norbait zaintzeko edo laguntzeko ahaleaginean ari zirela bizitakoak kontatzea. Benetan gertatutakoak ia inoiz ez du bat egingo “egin behar dena” dioen zerrendarekin. Garrantzitsua da azpimarratzea inor ez dela gaiari aditua eta, beraz, hanka sartzea oso ohikoa dela.

- Beharrezkoa da hau nabarmentzea ere: lehen erantzun bati buruzko informazioa edukitzeak ez du esan nahi dena gure kabuz era indibidualean egiteko gai sentitu behar dugunik, gure bizkar hartuko genukeen pisuak ez bailioke onik egingo indarkeria jasan duenari.



JARDUERA EGITERAKOAN BURURATU ZITZAIZKIGUN IDEIA OROKORRAK ETA GOGOETAK

Parte-hartzaile batzuek beti jotzen dute formakuntzaren zati hau “informazio praktikoa” jasotzen den zatitzat. Joera handia dago indarkeria matxistekin lotutako prozesuak “kudeatu” behar diren kontutzat hartzeko; prozedura argiak, jarraibideak eta aginduak behar dituzten kontutzat, hain zuzen ere. Egia izan arren garrantzitsua dela indarkeriari aurre egiteko moduak sistematizatzea, erraz jotzen dugu edozein egoeratan eta unetan aplikatzeko formulak aurkitu nahi izatera. Errealitateak frogatzen digu aholkuak edo jarraibideak formulatzat hartzeak ez duela emaitza onik ematen; izan ere, indarkerien kausak eta jatorriak ulertzeko, auzitan jartzeko eta gizarteratzeko prozesuak martxan jartzea eragozten du. Maiz, “mekanismo zehatzak edo jarraibideak” edukitzea eskatzen denean, ez dira eskura tresna erabilgarriak eduki nahi, baizik eta arazoa ahalik eta azkarren, eta ahal bada inor konturatu gabe, pasarazteko formulak. Konfidentziasuna eta esku-hartze prozesuak ez luzatzeko beharra (tartean diren pertsonak ez kaltetzeko) ez dira nahastu behar kontu hauei merezi duten garrantzia ez ematearekin. Halaber, garrantzitsua da komunitate osoa engaiatzea, ez kasu jakinen esku-hartzeetan, baizik eta kasu horien oinarrian dauden egiturak eta ohiturak desmuntatzeko lanean.

MATERIALAK

- [Diapositiba-aurkezpena](#)
- [Diapositibei jarraitzeko gida](#)

3.4

UNIBERTSITATEAN SEXU- INDARKERIARI LEHEN ERANTZUN BAT EMATEKO TRESNAK, ZERBITZUAK ETA ESTRATEGIAK

Azken urteetan asko hedatu da “lehen erantzuna” (ingelesetik “first response” literalki itzulia) kontzeptuaren erabilera, egoera baten aurreko lehen erreakzioaz aritzeko (gure kasuan, sexu-indarkeria). Lehen erantzun egokia emateak erreakzionatzen jakitea esan nahi du (hirugarren blokean landu dugun bezala), baina baita erreakzio hori eraginkorra, egokia, begirunetsua eta politikoki eraldatzailea izan

dadin beharrezko tresnak eskura izatea ere.

Laugarren bloke honetan hainbat jardueraren bidez landuko ditugu kontu horiek. “Eta hau hemen gertatu balitz?” jardueran, orain arte hitz egindakoa gure testuinguru hurbilera eta ezagunera ekartzen ahaleginduko gara. “Baliabide-mapa”-ren bidez, erreakzionatzeko eta prebenitzeko erabil ditzakegun hurbileko zenbait baliabide aurkeztuko dugu eta “Amaiera eta ebaluazioa” atalean formakuntza era ahalik eta ordenatuenean bukatu eta ikastaroaren balorazioa egingo dugu parte-hartzaile guztiekin batera.



4.1

ETA HAU HEMEN GERTATU BALITZ? (70 MIN)

JARDUERA HONEN BIDEZ, GURE INGURU HURBILEAN SEXU-INDARKERIA EGOERETAN ERANTZUTEKO, LAGUNTZEKO ETA PREBENITZEKO BENETAKO ZER AUKERA DAUZKAGUN AZTERTU NAHI DUGU. BERAZ, ORAIN ARTE EGINDAKO HAUSNARKETETAKO UGARI LURRERA EKARTZEKO ETA LEKUKO IKUSPUNTUAREN ARABERA PENTSATZEKO LEHEN PAUSOA IZANGO DA.

ZERTARAKO?

Hauetarako lagungarria izan dakiguke dinamika: Gure unibertsitate-ingurua beste ikuspuntu batetik abiatuta aztertzeke. Unibertsitateko beste pertonekin aliantzak nola eratu pentsatzeko. Esku-hartzeko dauzkagun mugez jabetzeko.

NOLA?

Parte-hartzaileak gutxienez hiru pertsonako beste hainbeste taldetan banatuko ditugu. Talde bakoitzeko pertsona batek osokoan hitz egindakoa azalduko die, gero, gainerakoei, beraz, komeni da oharrak hartzea. Talde guztiek kasu errealean sortako egoera bana landu beharko dute, galdera hauei erantzunda:

- Zer gertatuko litzateke hori unibertsitate honetan gertatu izan balitz?
- Zuen campuseko errealitateaz eta indarrean diren protokoloek eta araudiek duzuen ezagutza oinarri hartuta, zer neurri hartuko liratekeela uste duzue?

Galdera horiek hiru zutabeko fitxa simple bat betetzeko baliagarriak izango zaizkigu. Zutabe bakoitzean garrantzitsuak iruditzen zaizkigun elementuak jarriko ditugu:

- Zer muga eta zailtasun dauzkagu egoerari aurre egiteko?
- Zer indargune ikusten dituzu unibertsitatean egoera konpontzeko? Zer baliabide daude hari aurre egiteko?
- Analsiak zer behar azaleratu ditu? Zer gabezia aurkitu duzue?

MUGAK ETA ZAILTASUNAK	POTENZIALTASUNAK ETA INDARGUNEAK	BEHARRAK

Talde txikietan 30 minutuz lan egin ondoren, talde handira itzuliko gara haietan hitz egindakoa partekatzeke. Talde bakoitzak, txandaka, bere ideiak azaldu ahala, taulak osatzen joango gara (arbelean, ordenagailu eramangarri batekin eta proiektagailu batekin edo egokien iruditzen zaizuen moduan). Ondoren, gure unibertsitateko/campuseko/eskolako egoerari buruz eztabaidatzeko tarte bat hartuko dugu, aliantza- eta ekintza-estrategia posibleetan arreta jarrita. **Jarduera amaitzeko**, talde dinamizatzaileak adierazitako ideien berrikusketa labur bat egingo dugu, taldeak egindako aldaketa-proposamenetan arreta berezia jarrita.

HARTU KONTUAN JARDUERA EGITERAKOAN

- Proposatutako kasu erreala ez da gure campuseko errealitate jakinei buruz hitz egiteko aitzakia bat baino. Kontua ez da kasua sakon aztertzea, baizik eta abiapuntutzat erabiltzea. Baliteke talderen batzuetan taulako zutabeak desorekatuak egotea, eta zailtasunak edukitzea erakunde bakoitzeko abantailak identifikatzeko edo horiekiko kritikoak izateko.
- Garrantzitsua da argazki osoa edukitzea. Hori lortzeko, lanean ari diren bitartean taldeak “bisita” daitezke, zenbait eztabaida edo ideia sustatzeko.
- Kasu askotan, parte-hartzaileek ez dituzte ezagutuko araudi, protokolo edo jardun-ildo ofizialak. Halakoetan, garrantzitsua da talde-dinamizatzaileek horiek ondo menderatzea eta, are, eskura edukitzea, jarduera bera eta ondorengo eztabaida egiteko.
- Garrantzitsua da aldaketa-proposamenetan enfasia jartzea, eta horiek ez dutela instituzionalak izan behar ere azpimarratzea. Pentsatu hauek ere: laguntza-sare informalak nola indartu, talde feministekin, LGTBQ taldeekin edo beste talde batzuekin harremanak nola eduki.



JARDUERA EGITERAKOAN BURURATU ZAIZKIGUN IDEIA OROKORRAK ETA GOGOETAK

Unibertsitateak eremu oso instituzionalizatuak dira, eta lan egiteko eta pentsatzeko modu jakinak transmititzen dira horietan. Alde horretatik, ohikoa da pentsatzea unibertsitate-eremuan sexu-indarkeriari aurre egiteko har ditzakegun neurriak instituzionalak direla. Azken urteetan unibertsitate askok ondu dituzte indarkeria matxistaren aurkako protokoloak, besteak beste, sexu-indarkeriak ere kontuan hartzen dituztenak. Hala ere, kasu askotan protokolo horiek beste toki batzuetako protokoloak oinarri hartuta egin dira, neurriak lekuko testuingurura egokitzeko prozesurik gabe. Ondorioz, maiz, protokoloetan proposatutako neurriak ez dira errealitate eta behar jakinetara egokitzen, gehiegi ardatzen dira alderdi arautzailean eta ez diote prebentzioari eta berdintasuneko eta partaidetzazko kultura kritikoa sustatzeari behar adina heltzen. Izaera sexualeko indarkeria matxistei aurre egiteko unibertsitate-erakundeen erantzukizuna alde batera utzi gabe, ezinbestekoa da unibertsitateak ekosistema konplexutzat hartzen hastea, prozesu horietan parte hartu behar duten indibidualtasunak eta kolektiboak dauden eremutzat, hain zuzen ere.

MATERIALAK

- [Kasu Errealak dokumentuaren fotokopiak](#)
- Kasu errealei buruzko galderak eta taula dituen [fitxaren fotokopiak](#)
- Proiektagailua eta ordenagailua
- Paperak eta boligrafoak

4.2



BALIABIDE- MAPA (30 MIN)

GURE UNIBERTSITATEAN ESKURAGAI DAUDEN ZENBAIT BALIABIDEREN ETA UNIBERTSITATEAN EZ DAUDEN ARREN, ERABILGARRIAK IZAN DAITEZKEEN BESTE BALIABIDE BATZUEN MAPA BAT AURKEZTUKO DITUGU.

ZERTARAKO?

Hauetarako aukera emango digu jarduera honek:

- Unibertsitatearen barruan eta hartatik kanpo zer baliabide dauzkagun jabetzeko.
- Kasuak baliabide prestatuenetara bideratzea zein garrantzitsua den azaltzeko.
- Beste gizarte- eta instituzio-eragile batzuekin sarean lan egitearen garrantzia planteatzeko.

NOLA?

Lehenik, gure unibertsitateak zer baliabide dauzkan azalduko dugu; horretarako, aurretik horien analisi bat egin beharko dugu. Alderdi hauek hartuko ditugu kontuan:

- Zer eskaintzen du baliabide jakin bakoitzak eta hirugarren blokean landutako zer alderdiri erantzuten dio?
- Zer ikuspuntutan oinarrituta lan egiten dute baliabideek? Jarrera feminista edo generoarekiko eta sexualitatearekiko kritikoa al daukate?

Baliabide horiek beren artean “saretuta” daude edo bata bestearekiko guztiz independenteak dira?

Erabil ditzakegun hurbileko [baliabideen mapa](#) ere aurkeztuko dugu. Guk mapa hau eratu dugu, zuen baliabideak eransteko edita dezakezuen. Baliatu momentua ikastaroko parte-hartzaileek ezagutu ditzaketen beste bitarteko batzuei buruz galdetzeko: aurretik eska dakieke horiek ekartzeko.

KONTUAN HARTU JARDUERA EGITERAKOAN...

Gure unibertsitatean aurki ditzakegun baliabideen analisia egiten dugunean, garrantzitsua da paperera ez mugatzea. Ahal den heinean, komeni da arduradunekin hitz egitea edo baliabideak zuzenean ezagutzea, bai eta praktikan nola funtzionatzen duten ere, maiz ez baitute formulatuta dagoen eran egiten.

Unibertsitateetik kanpoko hurbileko baliabideak aukeratzeko ere gauza bera gertatzen da: garrantzitsua da zuzenean ezagutzen dituzten pertsonekin zer kalitate eta ikuspegi duten egiaztatzea. Gure kasuan, adibidez, oso garrantzitsua izan da berdintasun-teknikariekin eta ekintzaile feministekin hitz egitea.

JARDUERA EGITERAKOAN BURURATU ZAIZKIGUN IDEIA OROKORRAK ETA GOGOETAK



Indarkeria matxistari, eta bereziki, izaera sexualeko indarkeria matxistari aurre egiteko eskura dauzkagun baliabide publikoak eta komunitarioak asko ugaritu dira azken urteetan. Maiz, mugimendu feministak edo LGBTQ mugimenduak beren kabuz martxan jarritako baliabideak izaten dira: batzuk, gero, instituzionalizatu egin dira eta beste batzuek, aldiz, ez diote autonomoak izateari utzi. Gaur egun, hirietan behintzat, baliabide komunitarioak (mugimenduek era independentean antolatutako), instituzionalak (erakunde publikoek kudeatuak) eta pribatuak (batzuetan kooperatiba txikiek, enpresek edo gestoreek kudeatuak) aurki ditzakegu. Horien artean askotariko planteamenduak daude, maiz oharkabean pasatzen direnak aterki orokor baten azpian, proposamen/oinarri komun bat dagoela dirudien arren, ez baita beti hala izaten. Baliabide batzuek ez daukate indarkeria-egoerak jasan dituzten pertsonak ez birbiktimatzeke ikuspegi feministarik, beste batzuetan ahalduzterik edo eztabaida kolektiborik ekartzen ez duen lan pertsonalizaturako joera izaten da... Baliabide batzuk oso arinak dira eta beste batzuk, ordea, ez daude koipeztatuak... Garrantzitsua da ahal den heinean baliabide horiei buruzko informazioa edukitzea ahalegintzea eta, baliabide horietakoren batera pertsonak edo taldeak bideratzen baditugu, gutxieneko segimendua egitea pertsona horiek hartu dituzten moduz.

Horrez gain, merezi du honi buruz hausnartzeko tarte bat hartzeak: zergatik eratu ditugu unibertsitatean gainerako gizarte-eragileekiko isolatuta dauden eremuak? Hau da, bai eragile instituzionalekiko (udalak, zentro zibikoak), bai komunitarioekiko (taldeak, GGKEak...) isolatuta daudenak? Irakaskuntzaren neoliberalizazio garaiotan, badirudi unibertsitatearen eta gizarte zibilaren arteko loturak eratzeak enpresa-mundurekin loturak sortzea baino ezin duela izan. Baina formakuntza hau prestatzen ari ginela aurkitu dugun hainbat pertsonak kontatu digu, unibertsitatekanpoko baliabideetan lanean edo boluntario-lanean unibertsitateko pertsonak artatu dituela. Hala ere, kasu gehienetan ez dago unibertsitateen eta haietatik kanpo dauden baliabide horien arteko koordinazio-lotura praktikorik, ez eta informazio transferentziarik ere.

MATERIALES

- [Baliabide-mapa](#)

4.3

FORMAKUNTZA BATEK ERREAKZIO UGARI ERAGIN DITZAKE PARTE-HARTZAILEEN ARTEAN, LEHENAGO MARTXAN EZ ZEUDEN GOGOETAK SOR DITZAKE ETA GAI BATZUEI HELTZeko DUGUN MODUA ALDA DEZAKE. GUREAN LANTZEN DUGUN GAIA KONPLEXUA ETA KORAPILATSUA DA, ETA MINA, AMORRUA EDO FRUSTRAZIOA EKAR DITZAKE, HAIN ZUZEN ERE. HORREGATIK DA BEREZIKI GARRANTZITSUA FORMAKUNTZA ERA EGOKIAN AMAITZEA.

— AMAIERA ETA EBALUAZIOA (20 MIN)

ZERTARAKO?

Hauetarako lagungarria izango zaigu jarduera: Orain arte landutakoa berrikusteko, ideiak freskatze aldera. Parte-hartzaileek zerbait “airean” geratu denaren sentipena ez edukitzeko. Geure formakuntza ebaluatzeko eta etorkizunerako hobetzeko.

NOLA?

Formakuntzan landutako gai nagusiak berrikusiko ditugu, horretarako diapositiba-aurrekezpina erabilia, ezer ahaztu gabe sintetikoak izateko aukera ematen baitugu. Halaber, lantzeko gelditu diren kontuak planteatuko ditugu, baleude; adibidez, parte-hartzaileentzako materialen baten, ziurtagiriren baten... bidalketa.

Gure unibertsitatearen asmoa baldin bada formakuntzak hezkuntza-helburuez gain beste batzuk ere edukitzea, une ona da hori planteatzeko. Adibidez, formakuntzaren bidez parte-hartzaileek nolabaiteko sarea sortzea edo etorkizuneko jardueretan parte hartzea lortu nahi badugu, kontaktu-orri bat pasatzeko aprobetxa dezakegu.

Azkenik, ikastaroaren ebaluazioa egingo dugu, bi galdera hauei erantzuten ahaleginduta:

- Zer eman dizu formakuntza honek?
- Zeren falta sumatu duzu?

Baliteke parte-hartzaileei ebaluazio-galdetegi individual bat helarazi nahi izatea, online edo in situ betetzeko. Azken kasu horretan, ezinbestekoa da egiteko beharrezko denbora aurreikustea eta gordetzea.

KONTUAN HARTU JARDUERA EGITERAKOAN...

- Planteatutako formakuntzak osagai ugari ditu eta denak lantzeak denbora eskatzen du. Ohikoa da azken jarduera hauek alde batera uztea, denbora aprobetxatzeko, garrantzi txikiagokoak direlakoan. Aldiz, formakuntza ondo ez amaitzeak presa eta desordena sentipena sor ditzake, eta azkenean, gure kalterako izango da hori. Horiek direla medio, garrantzitsua da azken minutuak jarduera honetarako gordetzea.
- Ebaluazioa ez da ondo gelditzeko jarduera, arrasto ugari eman diezazkiguke formakuntzaren zer alderdi diren deserosoak edo zailagoak jakiteko. Horrek ez du ezinbestean esan nahi alderdi horiek kenduko edo aldatuko ditugunik, baina kontu bereziz landuko ditugu etorkizuneko saioetan.
- Ebaluazioak parte-hartzaileei mezu garrantzitsu bat emateko aukera ematen digu; hau da,

ez direla ezagutza baten hartzaile hutsak, baizik eta formakuntza osoan bai eta balorazioan ere beren ekarpena egin dutela.

- Ebaluazio indibidualerako galdetegia ideia ona da. Beste uneren batean online betetzeko aukera ematen badugu, baliteke egiten duen jendea gutxiago izatea, baina betetzen dutenek patxada handiagoz eta polikiago egingo dute. Informazio eta ideia ugari eman diezazkiguke!



JARDUERA EGITERAKOAN BURURATU ZAIZKIGUN IDEIA OROKORRAK ETA GOGOETAK

Oso zaila da unibertsitatean sexu-indarkeriek eta beste indarkeria matxista mota batzuek izan dezaketen garapena gelditzea. Normala da pertsona ugariaren ebaluazioetan agertzea egoera jakin batzuetan zer egin eta zer ez egin jakiteko aholku edo formula jakin gehiagoren falta sumatu dutela. Hirugarren eta laugarren blokeetan arreta alderdi horretan jarri badugu ere, formakuntza honetan arazoaren konplexutasunera eta hari buruzko gogoeta kritikora hurbiltzen ahalegindu gara bereziki. Kontu konplexuei, sexu-indarkeriari kasu, prozedura quasi teknikoak aplikatzeak erantzun eskasetara, mekanizatueta eta ez-eraldatzaileetara garamatza maiz. Erantzun horien atzean, sarri, zenbait erakundek kezka sortzen duen gai baten aurrean aktibo agertzeko duen beharra dago, errealitateari era konplexuan eta sakonean aurre egiteko beharra baino. Horrek ez du esan nahi gure formakuntzara etorritakoen ikuspuntua hori denik, baina garrantzitsua da kontuan hartzea gaiak larritasunak eta azkar eta zuzen jarduteko nahia eragiten dizkigula, ikastaroan ikasi dugunez, beti lortu ezin diren kontuak. Dena den, egokia da formakuntza planteatzen dugun bakoitzean norentzako den pentsatzea eta, beraz, gogoetagai izatea, zer nolako oreka komeni den hausnarketaren eta ezagutza jakinen transmisioaren artean.

MATERIALAK

- [Diapositiba-aurkezpena](#)
- Ebaluazio-galdetegia

4.3

A blue-tinted photograph of a person working at a desk. The person is wearing glasses and is looking at a laptop screen. There is a notebook open on the desk in front of them, and a glass of water with ice. The background is slightly blurred, showing another person's arm. The overall scene suggests a professional or academic setting.

**/ MAT
ERI
AL
AK /**

ASMATUTAKO KASUAK

1. KASUA: SANDRA

Sandra laborategiko teknikaria da (AZP laborala, jardun erdian) duela lau hilabete. Oso ilusionatuta dago eta lan egiten duen taldearekin ere oso gustura dabil. Iaz hotel batean lan egiten zuen, gelak garbitzen eta atontzen, lanbide heziketan ikasten ari zen bitartean. Ikasturtea amaitzean, Lluís-ek, bere praktika-tutoreak, urte beterako kontratu bat eskaini zion. Larregi pentsatu gabe eskaintza onartu zuen! Ikusita gauzak nola dauden, oso gustuko duen horretan lan egitea aukera paregabea iruditu zitzaion-eta. Sandra oso animatuta eta pozik dago, nahiz eta oraingo kontratuaren baldintzek, jardun erdikoak eta ordutegi malguak, beste enplegu bat izatea zaildu egiten duten, eta, horren ondorioz, hilabete amaierara estu samar heltzen den.

Egun batean, Lluís-ek Sandra gonbidatzen du zerbait hartzera eta, pare bat garagardo hartu ostean, intsinuatu zaio. Berak ez du gogorik inolako aferarik izateko baina roiloa jarraitzen dio apur bat ez ikusiarena eginez, gauza harago joan ez dadin esperoz.

Pare bat aldez gehiago geratzen dira, eta laborategian jendea txantxak egiten hasten da. Sandrak oso argi dauka adiskidetasun harremana baino ez dela, eta komentarioei erantzutea saiestuz ez du kasurik egiten. Baina, Lluís-ek segitzen du bere intsinuazioekin, eta Sandrak erabakitzen du distantzia bat ezartzea, elkarrekin irteteko hurrengo gonbidapenari ezetz esanez.

Kontratuaren data-amaiera hurbiltzen da. Sandra kezkatuta dago, hainbat alditan buruak esan zion kontratua luzatua izan zitekeela, baina aste asko dira gaiak ez dutela hitzik egin. Lluisek bere bulegora deitzen duelarik bere lan etorkizunari buruz hitz egiteko, bere aurrean jartzen da, eta besterik gabe belarrian kosk egiten dio xuxurlatuz ez kezkatzeko intimitatea izateko atea itxi duela giltzarekin. Sandra askatu egiten da asaldatuta eta haserretuta, eta erreakzio horren aurrean Lluisek bulegotik botatzen du esanez ez duela zertan lanera bueltatu hurrengo astean.

2. KASUA: JORDI

Marta HFEI (IVEF) gradua ikasten hasi da oso motibaturik, txiki-txikitik oso kirolari ona izan baita, nahiz eta beti oso deseroso sentitu den eremu horretan ikusten dituen zenbait jarrerekin. Herriko institutuan irakasle izateko gogo handiak ditu, bigarren hezkuntzan kirol heziketaren zenbait irakaskuntza-metodologia aldatu ahal izateko eta, batik bat, zenbait dinamika zalantzan jartzeko.

Lehenengo bi urte biziak unibertsitatean agertoki berriak irekitzen dizkiote. Bere heldutasun rol berriak, zein 'Genero eta Kirola' hautazko ikasgaiaren irakurketa eta eztabaidek indarra ematen diote genero-trasizio prozesu bati hasiera emateko. Hastapenetan lagun pare bati baino ez die azaldu, baina, hormonizazio-prozesuaren efektuak ikusgarriak izaten hasten direla erabakitzen du ikaskideei eta irakasleei esatea, eta, bide batez, eskatzea Jordi bezala tratatua izatea.

Maila ofizialean Jordi deitzea onartzen badute ere, askotan txantxak, zurrumurrak eta desatseginak diren iruzkinak entzuten ditu.

Ohitu egiten den arren, jokabide horiek mina sortzen diote. Egun baten aldagelako atean kartel bat aurkitzen du non honakoa dioen: 'Marta, sartu eta buztan on bat zer den probatuko duzu'.

Jordi-k kartela kolpe batez kentzen du eta, asaldatuta, oihukatzen hasten da.

3. KASUA: IRAKASKUNTZA

Soziologia klase batean, irakasleak, zeinak askotan umorea erabiltzen duen bere azalpenetan, komentario batzuk botatzen ditu hemen eta han, adierazten dutenak bere ustez homosexualitatea gaitz soziala dela. Gelan halako ezerosotasuna sortzen da, baina inork ez du ezer esaten arik eta baieztapenak erabat esplizituak bihurtzen diren arte. Egun batez, irakasleak aipatzen du bere ustez jarrera desbideratuok txikitako traumaren ondorio izan daitezkeela, eta barre artean esaten du: "nire bizilagun bat bezala, internado batean egon zena eta handik maritxu bueltatu zen".

Ikasle batzuek barre egiten duten bitartean, beste batzuk ezin sinistuta dabilta. Mariak, klaseko ordezkaria denak, galdetzen dio: "ze arazo duzu zuk ba jende homosexualarekin? Ni lesbiana naiz". Klaseko fondotik zera entzuten da: "hori da ez duzulako oraindik behar zenuena aurkitu, baina horrek konponbide erraza dauka...". Irakasleak eta klaseko batzuk irribarrez hartzen dute komentarioa, eta Mariak, oso haserre, irakasleari eskatzen dio bere ikaskideari kontu hartu diezaion esandakoengatik. Horren ordez irakasleak dio "marimutilak oso errez haserretzen zarete, ezin duzue ezta txantxa bat onartu..."

Ikasle talde batek, Maria tartean, haserretu eta klasetik alde egiten dute, irakasleak alde egiteak ondorioak izan ditzakeela esaten dien bitartean.

4. KASUA: UNIBERTSITATEKO JAIA

Unibertsitateko jaietan, campusetik gertu dagoen kontzertuen gunea lehertzear dago, bete-betea. Musika oso ozen dagoenez, bertatik pixka bat urruntzea erabakitzen duzu. Bat-batean, lurrean jarrita dagoen neska bat ikusten duzu, begirada galdua duena. Bere bila aritu den lagun bat neskaarengana gerturatu eta zur eta lur gelditzen da. Zuk gertatu denaren inguruan ezer ez dakizun arren, ez diozu kontu horri susmo onik hartzen. Biei begira gelditzea erabakitzen duzu, kezka apur batekin.

Lurrean zegoen neska hitz gabe gelditu dela dirudi, baina zure atzean dagoen ikasleak, duela gutxi komunetik dar-darka, makal eta arropak gaizki jantzita ateratzen ikusi duela dio, minutu batzuk lehenago klase-kidea den Marc txistuka atera den komun beretik, hain zuzen ere. Beste batek, kontzertuen gunean solasean goxo-goxoki aritu direla eta neska komunerantz joan denean Marc atzetik jarraika ikusi duela dio.

5. KASUA: FERRÁN

Ferrán ikasturte honetan klaseak ematen hasi da irakasle elkartu moduan. Ikasleek ezin dute sinetsi, beste irakasleen artean ohikoa den jarrera hotzaren aldean, jatorra eta gertukoa den maisua dutelako. Klasean, ikasleak oso eroso sentitzea ahalbidetzen duen giro ederra sortzen da, kezka akademiko eta sozialak komentatuz, eztabaida etengabeekin, Egun batean, Ferranek Gloria izeneko ikaslearen mezu bat jasotzen du e-postaz, ezagutu zirenetik erakarrita sentitu dela esanez eta zerbaite hartzeko hitzordua proposatuz. Ez daki zer egin, nahastuta eta segurtasunik gabe sentitzen da eta ez erantzutea erabakitzen du, estrategiarik onena hori dela pentsatuz.

Egun batzuk beranduago, klaseak bukatzerakoan, Gloria pasilloan dago bere zain eta zuzenean mezua irakurri duenetz galdetzen dio. Gaiari heldu behar ez izateko, ez dela konturatu esaten dio eta zalantzaren bat balu Moodle bitartez helarazteko, horrela mezua ez baita galduko.

Gloriak ez du sinesten, ilusio ugari zituen dagoeneko eta ez du amore ematen.

Goizez “egun on” mezuak bidaltzen hasten zaizkio sarritan, mezu horietan hitzorduaren kontua gogoraraziz. Ferranek erantzun gabe jarraitzen duenez, bere asmoak zabaldu eta partekatzea erabakitzen du, Facebook-etik mezuak bidaliz eta “gustuko dut” eta bihotzak bidaliz bere albiste guztietan, baita ekitaldietara gonbidatuz eta twit-ak bertwitteatuz ere. Ferranek, Facebook-en blokeatu ostean, ez daki nola kudeatu egoera hau, eta akituta sentitzen dela aipatzen dizu.

6. KASUA: NATALIA ETA PANTXO

Natalia eta Pantxok unibertsitate berean ikasten dute. Bost hilabetean elkarrekin aritu ondoren, Pantxok Erasmus bekarekin alde egiten du atzerrira. Sarritan jarduten dute txateatzen ohera joan aurretik, baita joko erotikoetan aritu ere, mugikorraren bidez elkarri argazkiak bidaliz. Egun batean, kontua berotu eta geroz eta arropa gutxiagorekin solasten dute, mugikorraren tresneria eta abantailekin detaile txiki guztiak jasoz eta harekin jolastuz.

Halere, Nataliak faltan botatzen du Pantxo, benetako besarkaden beharra sentitzen du eta urruntasunak ez dio laguntzen. Azken boladan makal samar sentitzen den arren, lagunekin gauez ateratzea erabakitzen du. Hurbileko lagunekin batera eta 4. mailako beste kide batzuekin afaltzera doa. Bertan Mario ezagutzen du. Oso gustura sentitzen dira elkarrekin hasieratik eta erakarpen sexuala ere sumatzen dute hitz egiten hasten diren momentutik, baina berak ez dio Pantxori minik egin nahi eta bertan uzten dute kontua. Hurrengo astean, Natalia eta Pantxok eztabaida bat izaten dute mugikorraren bidez, Nataliak triste eta haserre amaitzen du elkarriketa, eta haize apur bat hartzea erabakitzen du. Berriz ere gauez, lagunena bila zebilela, Mariorekin egiten du topo. Nola dagoen galdetzean, Natalia hizketan hastean berehala hasten zaio Pantxoren jarreraren inguruan hizketan, besteak kontsolatu egiten du eta musukatzen amaitzen dute.

Pantxoren kide batek ikusi eta berari kontatzen dio. Azken honek, mendekatzeko asmotan, unibertsitateko sarean bikotearekin elkar-trukatutako argazki intimoak zabaltzen ditu.

Hurrengo egunean, Natalia klaseko atetik sartzean, txaloka hasten dira klase kide batzuk, barre artean “Asko gustatzen zaizkizu buztanak, ezta?” beste batzuek “bularretako beltza marroia baino hobeto gelditzen zaizu”. Natalia shock egoeran gelditzen da.

Berehala, ikaskide guztiek dute gertatu denaren berri.

ASMATUTAKO KASUEN ANALISIA

1. KASUA: SANDRA

- Identifikatu dezakegun indarkeria mota

Kasu honetan sexu jazarpena identifikatu dezakegu, xantaia erabiliz gainera. Sexu proposamenak daude, baita baimenik gabeko kontaktu fisikoa ere, eta azken unean ikusiko dugu era garbian xantaia, nahiz eta kasua irakurri ahala konturatzaren garen hasieratik bertan zeudela elementu hauek guztiak. Elementu ugari egiten dute kasua konplexu, bereziki egoera jazarpen bezala identifikatzea zailtzen duten elementuak. Egoera hau ohikoa da jazarpen kasuetan, sotilak direlako askotan.

- Generoa, sexualitatea eta beste botere elementu batzuk

Gehienetan, errazen identifikatzen dugun botere elementua lan-egoerarena da. Sandra eta Lluisen artean harreman hierarkikoa dago, Sandraren lana berrituz edo ez Lluisen eskutan dago gainera. Testuak azaltzen duen bezala, Sandraren egoera berezia da maila horretan: lehenago gustuko ez dituen lanetan aritu da eta ez du nahi horra bueltatu eta beraz lan prekarioa onartzeko prest dago. Askotan unibertsitatean efektu maltzurra sortzen da honen inguruan, “gustuko dugun horretan” lan egitearen trukean, oso baldintza eskasetan jarduten baitugu lanean. Horretaz gain zure lan-kontratua luzatzea pertsona batekin duzun harremanaren araberkoa bada (hein batean, behintzat) ez duzu egoera erraza harreman hori berdintasunez garatzeko.

Genero eraikuntza eta estereotipoek goitik behera zeharkatzen dute egoera. Alde batetik, nahiko normalizatua dugulako hainbat esparrutan gizon askok duten joera botere-eskalan beraien azpitik dauden emakumeekiko erakarpene sentitzeko. Erakarpene hau batzuetan kasualitatea da baina beste askotan sistematikoa da, eta adierazten digu hain zuzen ere botere desoreka hori dela gustuko dutena, eta ez pertsona zehatz bat edo beste. Beste alde batetik, genero sozializazioan harremanak garatzerakoan gizonen eta emakumeen paperak ondo zehaztuak daude: gizonak ez dute ezezkoa inondik ikusi nahi eta emakumeek erakusten zaie ezin dutela era esplizituan berari adierazi. Edonola ere, eta kasua irakurrita, garrantzitsua litzateke tranpa horretan ez erortzea: norbaitek harreman bati baiezkotzea edo ezezkoa eman ahal izateko, hori posible egiten dituzten kondizioak egon behar dira. Kasu honetan argia da Lluisek argi hitz egiteko edo galdera taularatzeko parada ekiditen duela, eta horrek eragiten du hein handi batean Sandraren zailtasuna eskaintza ukatzeko. Ohikoa da, gainera, halako egoeretan jazarleak egoera ukatu eta jazarriak dena asmatu duela esatea. Jazarleak anbiguotasun horretan jardun duenez, bere burua babesten du. Honi lotu behar zaio, noski, emakumeek egozten zaien sinesgaitzatasuna kasu batzuetan eta gizonen hitza zalantzan ez jartzea.

Generoarekin bete-betean harremana duen kasua da beraz.

- Nor gehiago dago era batean edo bestean inplikaturik?

Bikote heterosexualak harreman estiloen erdigunean daude gure gizarteetan, suposatzen da jende guztiak izan behar duela bikotea eta bikote berriak sortzea beti notizia on bezala ulertzen da. Bi pertsonen harremana hasten badute, nahiz eta ez dakigun deus harreman horren nondik-norakoez, erreakzio orokorra positiboa da. Horregatik lankideek komentario eta txisteak egingo dituzte, baina ez zaio inor gerturatuko harremanaz galdetzeraz, zeharka bada ere. Galdera horrek (“zer gertatzen da Lluisekin?”) agian sortu zezakeen aukera Sandrak bere ezerosotasuna adierazteko, baina ingurunearen jarrera da galderarik ez egin eta jakintzat ematea bikote harremana hasten ari direla, dena ondo doala eta biak gustura daudela. Honetaz gain, halako egoeren aurrean joera egoera alderantziz ulertzea da: emakume gazte hori da egoera baliatzen ari dena bere probetxurako, nagusiarekin arituz lan baldintza hobekitzeko. Errealitateak erakusten digu ez dela horrela. Ikuspegi horrek, noski, Sandraren zaugarritasuna handitzen du, eta Lluisek jarrera legitimatzen.

Beste pertsona eta eragile batzuek ere zerbait izan zezaketen esateko. Jendea komentarioak egiten ari bada, posible da ikastegiko zuzendaritzara edo bestelako agente-postutara zurrumurrua heldu izana. Unibertsitateak ardura du ez bakarrik egoera hori eteteko, baizik eta botere kontzentrazio horiek ekiditeko. Noski horrek unibertsitatean prozedura asko berrikustea ekarriko luke.

Sandraren gertuko lagunek edo lankideek noski, paper positiboa jokatu dezakete egoerari buruz hitz egiteko parada eman eta beraien sostengua eskainiz gero.

Lluisek lagun eta gertuko lankideek, ziur aski egoeraz jabetu direnek, aukera eta betebeharra dute ere bere jarrera zalantzan jarri eta kuestionatzeko. Botere-guneetan dauden pertsonen ordea, joera dute korporatibismoz jokatzeko, eta zentzu honetan halako egoeren inguruan isiltasun itun antzekoa dago gizonen artean. Korporatibismo hori haustea lagungarria da egoerok ekiditeko.

2. KASUA: JORDI

· Identifikatu dezakegun indarkeria mota

Kasu honetan identifikatzen duguna eraso sexuala da, hain zuzen ere bortxaketa mehatxua delako Jordik komunean aurkitzen duena. Zehaztuko bagenu, eraso sexual horrek izaera transfobia izango luke, hain zuzen ere erasoaren bidez zigortu nahi dena bere nortasun sexuala erabakitzeke gaitasuna delako, bere genero-arauetara ez lerratzea.

· Generoa, sexualitatea eta beste botere elementu batzuk

Engungo gizarte ereduak sexua era bikoitian ulertzen du, bakarrik gizonak edo emakumeak izan gaitzkeela ikasten dugu. Horretarako genitalen forma, hormonak eta kromosomak erabili ohi dira elementu definitzaile bezala. Horiek zalantzan jarri dituzte hainbat zientzialari eta ikerlarik (ikus Anne Fausto-Sterling-en “Cuerpos Sexuados” liburua, adibidez). Izaera bikoiti hori, ordea, generoarekin lotuta dago erabat. Gizon batek gizon izateko eta emakume batek emakume izateko ez du soilik gorputz bat edo beste izan behar, genero arauekin bat egin behar du gainera.

Gizentasunaren eta emakumetasunaren zama horiek denongana zuzentzen dira, eta arau ezberdinak zehazten: nola jantzi behar zara, ze gorputz mota izan behar duzu, zer den polita izatea eta zer ez, ze jarrera izan publikoan, nola ulertu zure lekua familian edo lagunartean, zure bizimodua nola irudikatu... Zerrenda amaigabea litzateke. Arau hauek hausten ditugunean, gizarte-zigorra jasotzen dugu, neurri ezberdinetan. Pertsona batzuk maila ikusgarriagoan hausten dituzte arauok, haiekin identifikazioa oso zaila egiten zaielako edo, Jordiren kasuan bezala, ezarri zaien generoarekin identifikatu ez eta beste generoan hobeto biziko direla sentitzen dutelako.

Ezarrirako generoarekin ez identifikatzea transexualitatearekin lotu dugu mendebaldeko gizarte modernoetan, baina jakin badakigu oso bizipen anitzak daudela esperientzia horien artean. Horregatik batzuek trans*1 hitza erabiltzen dute, asteriskoarekin. Asterisko horren atzean daude, hain zuzen ere, bizipen ezberdinok: ezarrirako generoarekin identifikatu ez baina bestearekin identifikatu eta aldaketa egin nahi dutenena (transexualak); identifikazio hori era aldakorrean bizi dutenak (transgenero), edo norbere generoan ez identifikatzeaz gain beste generoan ere identifikatzen ez direnak... Lerro jarraia marraztuko bagenu, continuum bat, esan genezake lerro horretan gaudela ere genero arauen batekin arazoa izan dugun edozein pertsona, esan bezala, beste maila batean, noski.

Lerro honen beste aldean, ezarrirako generoarekin identifikatzea, eta identifikazio hori bizi-ziklo osoan mantentzea normaltasun eta osasun ezaugarri bezala ulertzen dira. Horri cisgenderismoa edo cisgenero izatea deitzen diogu.

Bi esperientzia hauek (cisgenderismoa eta trans* esperientzia) mailakatuta daude eta botere harremanean. Aztertzen dugun kasu honetan, trans* esperientzia ez da baliozkotzat ematen ez eta are gutxiago errespetatzen. Indarkeria sexualak kasu honetan kontrol izaera erabat garbia du, zigor bezala erabiltzen da arauak hausten dituenarentzat. Are gehiago, mehatxua bera egiteko, Sergiren lehengo izena erabiltzen da, Marta. Hemen, noski, Jordi emakume bezala ikusi nahi dutenentzako emakumea da beraiek ezartzen dizkioten ezaugarri guztiekin eta, beraz, bortxaketarekin mehatxatzen dute. Transfobia eta sexismoa eskutik doaz kasu honetan.

· Nor gehiago dago era batean edo bestean inplikatur?

Kasu honek argi uzten du halako egoera batek ezkatzen duen konplexutasuna. Kasua ez da edozein lekutan gertatzen, kirol fakultatean baizik. Edonon dira oso presenteak generoaren inguruko presioak, baina halako espazio batean generoarekin bete-betean lotzen dugun elementu nagusia, gorputza, jokoan dago etengabe, jarduera eta une ezberdinetan.

Testuak dio Jordik lortu duela ofizialki bere izena aldatzea unibertsitatean, baina gaur egun unibertsitate oso gutxitan da hau posible. Posible da irakasleek zure izena aldatzea zerrendan, edo klasean zure izenetik deitzea, baina unibertsitate gehienetan oraindik ez da posible erregistro ofizialetan hori egitea (matrikulan, titulutan, aplikazio informatikoetan...).

Unibertsitate batzuk pausuak ematen ari dira hori posible izan dadin, baina bide luzea dago egiteko.

Edonola ere kasuak erakusten digu erabaki ofizialek ez dituztela errealitate sozialak eraldatzen. Unibertsitateetan argi izan behar dugu ez dela nahikoa protokolo edo araudi zehatzekin, elkarbizitza eraldatu dezaketen neurri eta ekimenak jarri behar dira martxan aldi berean. Pasiotan entzuten diren komentarioak dira hain zuzen ere egoera muturrera eramanez izateko beharrezko zoria.

Horretarako, noski, ezinbestekoa dugu transfobiaz hitz egitea, genero arauak hausteak sortzen digun beldurraz, arauok hausten direnean sortzen zaigun irrikaz egoera berehala zuzentzeko, izan indarkeriaz, inbisibilizazioaz edo binarismoa berrinposatuz. Ezinbestean, trans* esperientziari buruz dugun ikuspegia aldatu behar dugu: okerreko gorputzean jaio diren pertsonen kontua izan ordez (inor ez baitago “okerreko” gorputzean) denon artean sortu eta indartzen ditugun genero-arauarekin lotuz.

3. KASUA: IRAKASKUNTZA

• Identifikatu dezakegun indarkeria mota

Kasu honetan ahozko eraso bat identifikatu dezakegu. Ahozko eraso honek izaera lesbofobia du, hain zuzen ere heterosexualitatearen arauaren barruan ez dagoen harremantzeko mota bati eta berak sortzen duen identitateari eraso egiten zaiolako. Noski, kasua larritzen du eraso egiten duenak unibertsitatean erasotuekiko egoera hierarkikoan egoteak, eta gainera pertsona erreferentziala delako irakaslea den heinean. Erasoan ez du ordea berak bakarrik parte hartzen, ikasle batzuek ere bere komentarioekin babesten dutelako.

• Generoa, sexualitatea eta beste botere elementu batzuk

Gida honen hitzaurrean azaldu dugun bezala, genero eta sexualitate kontuak estuki loturik daude. Egungo eredu heteropatriarkalean, gizon eta emakume izatearekin batera doa “beste sexuarekiko” erakarpina sentitzea. Horrek lotura dauka ustezko konpatibilitate batekin, erreproduktzioarekin justifikatzen dena, sexu harremanen helburu bakarra hori balitz bezala.

Beren sexualitatea arau horietatik kanpo bizi dutenentzat, ohikoa da diskriminazioa eta erasoak jasotzea, nahiz eta gizarte mailan sinismena “iraganeko kontuak direla eta orain gauza horiek onartzen direla” izan. Azken hamarkadetan gure ingurunean egon diren aldaketa administratibo eta legalak (ezkontza eskubidea, adopzio eskubidea...) ez dira halabeharrez sakoneko eraldaketaren adierazleak, ezta are gutxiago. Ikerketa askoren arabera ahozko erasoak zein fisikoak bere hortan mantendu edo areagotu egin dira gurean.

Kasu honetan ikusten den bezala, ohikoa da onartzen ez den desio horri azalpen patologikoak bilatu nahi izatea. Obsesio handia dute batzuk jakiteko zergatik dagoen sexu bereko jendearekin harremanak dituen jendea, baina inork ez du ikertzen zergatik gertatzen den kontrakoa. Are gehiago, inork ez du ikertzen zergatik jende batentzako onartezinak diren heterosexualitateaz desberdinak diren harremanak, alegia zergatik existitzen diren homofobia eta lesbofobia.

Aztertzen ari garen kasuan emakumeen sexualitatearen inguruko uste zantarrak daude ere: emakumeen plazera gizonetzkoen zerbitzura dago, eta soilik gizona da emakumea gozarazi dezakeena. Ikasleek egindako komentarioan (“lesbiana bazara da oraindik ez duzulako behar zenuena aurkitu, baina horrek konponbide erraza dauka...”) argi uzten dugu ikuspegi hau, oso ohikoa gizon askoren artean. Emakumeek plazera, maitasuna eta bizipoza esperimintatzea gizonen oniritzi eta tutoretza gabe beldurgarria da gizon askorentzat.

Irakaslearen posizioak, pertsona erreferente bezala, larritzen du egoera hau. Hori gutxi balitz, ikasle batzuk protesta moduan klasetik alde egitea erabakitzen dutenean mehatxua da bere erantzuna, bere botere posizio horretatik jaurtia gainera. Botere ezberdintasun honek, ordea, ez du ekiditen arestian ere aipatu dugun gizonen arteko elkartasuna, irakasleak ahozko eraso egiten duenean ikasle batzuk berehala jarraitzen dute bere “txantxa”. Halako erasoan aurrean mingarria da eraso bera, baina baita konplizitatea ere.

• Nor gehiago dago era batean edo bestean inplikatur?

Aipatu dugun bezala, ikasleek beraien kidea defendatu ordez irakaslearen alde egiteak eraso areagotzen du. Aldi berean, irakasleari aurre egiteko gogoz egon zitezkeen batzuk isiltasunean babestuko ziren, are gehiago irakasleak mehatxua erabili ostean. Kasu askotan zaila da elkartasuna erakustea egoera dela medio, eta beraz formula ezberdinak bilatzea garrantzitsua da.

Zentzu honetan beste irakasle batzuek gaiaren inguruan hartuko duten jarrera oso lagungarria edo kaltegarria izan daiteke eta, zer esanik ez, departamenduak edo ikastegiak hartutakoa ere. Oso garrantzitsua da ahozko eraso hauek normaltzat ez ematea.

4. KASUA: FESTA

• Identifikatu dezakegun indarkeria mota

Kasu hau formazioan lantzeak aukera ematen digu ohikoa den egoera bati buruz hitz egiteko: gertaera batzuen aurrean informazio oso gutxi dugu eta hala ere zerbait egiteko beharra. Kasu honetan gertaera argi ez egon arren, eraso sexual (bortxaketa) baten aurrean gaudela pentsatu dezakegu nahiko garbi, eta horren inguruan zer edo zer egin behar dugu, prudentziaz noski. Datu guztiak eskura ez izateak tentuz aritzera eraman gaitzake baina ezin da bilakatu deus ez egiteko aitzakia. Izan ere, egoera gehienetan, ez ditugu datu guztiak inoiz eskuratuko.

• Generoa, sexualitatea eta beste botere elementu batzuk

Indarkeria sexual oro botere eta kontrol elementuak dira. Bortxaketa, eta bortxaketaren mehatxua kontrol tresna bortitza da emakumeen kontra. Emakumeen sozializazioan oinarritzea da gizonen “neurri gabeko desirari” transmititzen zaien beldurra.

Beldur horrek mugatze efektua du, emakumeen sexualitatea eta mugikortasuna murriztuz. Bestalde, gizonezkoei gutxitan transmititzen zaie bortxatzaileak izatearen beldurra. Hein handi batean, gizarteak emakume guztiak bortxaketaren biktima potentzial direla erakusten digu, baina ez gizonak bortxatzaile izan daitezkeenik.

Bortxaketaren inguruko mitoak, ordea, ez du jasotzen eraso sexual mota horren errealtate osoa. Askotan bortxaketaz ari garenean ezegunaren artean eta indarkeria fisiko handia medio gertatzen dela irudikatzen dugu. Errealtatea, ordea, bestelakoa da: kasu askotan erasotuak ezagutzen du erasotzailea, kasu askotan berarekin nolabaiteko harremana du eta bortxaketa ugari sexu-harreman ohiko bat bezala hasi daitezke. Bikote-harreman barruan gertatzen dira askotan.

Eraso sexual ororen atzean berau legitimatu eta posible egiten duen sinismen multzoa dago. Azken urteotan “bortxaketaren kultura” aipatu izan da askotan hori adierazteko. Bortxaketaren kultura elikatzen duten sinismen eta praktika ugarien artean daude: gizonezkoen sexualitatea kontrolaezina dela pentsatzea, emakumezkoen sexualitatea gizonek proposatutako harremanak onartzera mugatzen dela, emakumeek ezetz diotenean errepresio hutsagatik dela eta beraz baietz esan nahi dutela, sexu harremanak ezin direla negoziatu, gizonen desioa denaren gaintik dagoela eta emakumeena azpitik...

Marko honetan kokatu beharko genuke kasu honetan gertatzen dena. Askotan, halako egoeren aurrean epaia eraso jasan duenari zuzentzen zaio: janzteko modua, alkohola edo beste drogarik hartu ote duen, erasotzailearekin ligatu duen lehenago, beste harremanik duen... Erasotzailearengan atentzioa jartzen denean, kontrako ikuspegitik izan ohi da: “ezin izan du halakorik egin oso jatorra delako”, alkohola edo beste drogarik hartu badu “normala da mugak ondo ez bereiztea”... Eraso sexualak ez dira ordea arrazoi horiengatik gertatzen, arestian aipatu dugun kultura horrek erraztuta gertatzen dira, eta botere harreman desorekatuen isla dira, hala nola berauek mantentzeko kontrol mekanismoa

• **Nor gehiago dago era batean edo bestean inplikaturik?**

Halako egoera batean eraso jasan duenaren gertukoak lagungarri izan daitezke, kasu honetan berarekin festan zeudenak aipatu ditzakegu. Aldi berean ezinbestekoa da mutil honekin daudenean bere jarreraren babesle ez izatea. Arestian aipatu dugun moduan ohikoa da gizonen artean korporatibismoz jokatzeko halako kasuetan, gure lagunak “halako zerbait egin duela” sinisten ez dugulako edo besterik gabe justifikatu egiten dugulako. Amaitzeko, azken urteetan asko garatu dira jai esparrurako protokoloak, eta argi ikusi da pertsona eta eragile ororen ardura dela jai esparruetan gertatzen daitezkeen erasoak ekiditea eta gertatuz gero egoki erantzutea. Unibertsitate esparruetan edo unibertsitate bizitzarekin lotuta ospatzen diren jaietan, zer esanik ez, beronek agente aktiboa izan behar du sentsibilizazio kanpainak eta protokoloak sustatzen, ikasle zein langileak biltzen dituzten eragileekin batera posible bada (ikasle sindikatuak, talde feministak, LGTBIQ taldeak, jaien batzordeak...). Pentsatu beharrekoa da ere jai hauen antolakuntza esku pribatutan uzteak izan dezakeen eragina neurri hauek garatzerako orduan.

5. KASUA: FERRAN

• **Identifikatu dezakegun indarkeria mota**

Ferranen kasuan jazarpen mota espezifikoa ikus dezakegu, ingelesez *stalking* bezala ezagutzen dena, eta pertsona bat jazartzeko etengabe bere bizitzan jazarlearen presentzia indartzean datzana, izan mezuak bidaliz, gertutik jarraituz edo bere espazio berean egoten saiatuz. Ferranen kasuan komunikazio teknologiek eta sare sozial digitalek zeresan handia dute.

• **Generoa, sexualitatea eta beste botere elementu batzuk**

Kasu hau formazioan jartzeak zentzu berezia zuen, eta bereziki egokia izan daiteke taldeka lantzen denean sesio berean 1go kasuarekin batera lantzea (“Sandra” deitu dugun kasu horrekin). Biak ala biak jazarpen kasuak izanik bien arteko ezberdintasunak nabarmentzeko kason berezitasunak pentsatu behar dira.

Hasteko botere posizioak aztertzea garrantzitsua da: Ferran irakaslea da, eta Gloria bere ikaslea. Ferran gizona, eta Gloria emakumea. Ferranentzat zaila izan daiteke harremanari mugak jartzea, ikasleekin harreman ona lortu du eta ez du nahi hari hori moztu. Gainera, lan horretan berria bada, baliteke ez jakitea ondo egoeraren aurrean nola jokatu. Baina ezinbestekoa da ulertzea bere eskutan dagoela zerbait egitea, mugak jartzeak ez dituela berarentzat ondorio negatiborik izango, ez sozialki, ez lan mailan. Areago, posible da Gloriaren jarrera sozialki gaizki ikusia egotea hain zuzen ere bere generoari dagokiona (harremanetan ekimenik ez izatea) egin ez duelako.

Ferranek bizi duen egoera injustua dela esan daiteke, baina ezin dugu generoarekin lotutako indarkeri bezala ulertu, eta ezin diogu tratamendu berdina eman. Hau esateak ez du esan nahi ez dugunik ezer egingo, baina kasuaren berezitasuna kontutan izango dugu.

• **Nork gehiago du zerbait esateko?**

Ferranen inguruneak, bere gertuko lankideek, laguntza eskaini ahalko liokete. Horretarako garrantzitsua da gaiari buruz serio hitz egin ahal izatea. Ferranen ingurukoek umorez hartuko balute beraiek kontatutakoa, edo “egoera aprobeztatzeko” gomendatuz, ez luke batere lagunduko, noski. Gloriaren ingurunean ere berdin, serio hartu beharko litzateke kontua eta bere jarrerari mugak jarri. Maila instituzionalean ere lan handia dago egiteko oraindik ere ikasleen eta irakasleen arteko harremanetan dauden inplikazioez hausnartzeko.

6. KASUA: NATALIA ETA PANTXO

• **Identifikatu dezakegun indarkeria mota**

Natalia eta Pantxoren kasuan adostasunik gabeko sexu irudien zabaltzea dago. *Sexting* bezala izendatu den sexu praktika (mugikorrek edo beste gailu batzuk erabiliz sexu harremanak izatea) da horren hasiera, baina arazoa sortzen da pribatutasuna mantentzeko adostasuna haustea erabakitzen duenean. Askok honi sexpredding esaten diote.

• **Generoa, sexualitatea eta beste botere elementu batzuk**

Sexua izateko moduak aldakorrak dira, eta oso anitzak. Gailuen bidezko sexua praktikatzeko oso ohikoa da gaur egungo gure gizarteetan. Edozein sexu harreman bezala, irudien trukaketan edo zuzeneko bideo transmisiotan oinarritzen den sexu harreman mota hau ere komunikazioan, adostasunean eta denen desioaren errespetu eta zaintzan oinarritu behar da berdinzalea izan dadin. Edozein sexu praktikatan bezala, *sextingean* ere baldintza horiek ez dira beti betetzen, hain zuzen ere arestian aipatu dugun botere desoreka dela medio. Baina berez, praktikak berak ez du beste edozein sexu praktika baino hobeagoa edo txarragoa.

Kasu honetan sexu harreman bezala hasten dena indarkeria sexual bezala amaitzen da. Noski, gizon eta emakumeentzako sexua ez da esanahi sozial berdinekin eraiki eta, beraz, sexu-irudien banatze horrek eragin espezifikoak ditu Nataliarentzako. Jadanik esan dugun moduan, emakumezkoen sexualitatea pasibo bezala saltzen da, eta beraz emakume baten irudiak zabaltzeak emakume hori objektu bezala ulertua izatea dakar gehienetan. Zer esanik ez, Nataliari itsatsi ahal zaion estigma (sexu harremanetan “erraza” izatea, “denetik” egitea, “puta izatea”...) ez da Pantxok jasan izango zuena alderantziz gertatu balitz (sexualki aktiboa izatea, sexu harremanak izateko erraztasuna izatea, gizonkotea izatea... izango lirateke berari ezarriko zitzaizkionak).

Sexting kasuetan gertatzen den eraso ohikoena irudien adostasun gabeko zabaltzea da, eta gehienetan zabaltzen diren irudiak emakumeenak izaten dira (bestelako indarkeria sexualetan gertatu ohi den bezala, desoreka nabaria dago). Irudiok lehen aldiz banatzen dituztenak kasu askotan gizonak dira, eta askotan neska horien bikoteak izandakoak (behin-behinean edo era iraunkorrean).

Sextingaren inguruan hitz egiten denean joera gure ustez problematikoak daude: haietako bat praktika bera okertzat jotzea da, berezko errespetu falta balitz bezala (benetan arazoa non dagoen ezkututzen du honek). Bestea babestu nahi den subjektua gehiago mugatzea da: emakumeei, beren irudiak banatu ez ditzaten, halakorik inoiz egin ez dezaten eskatzen diegu: “Ziur egoteko era onena inoiz argazkirik ez ateratzea da”. Honek mugatu egiten du sexu praktika hori, eta etengabeko mesfidantza egoeran bizitzera behartu. Ez litzateke hobe gizezkoekin lantzea zergatik ez dakiten adostasuna errespetatzen? Alarma sozial eta debeku moralistaren ikuspegitik baino ikuspegi politizatu eta berdinzaletik landu beharko genuke kontu hau.

Kasu honetan aipatzeko modukoa da ere erasoaren aurretik gertatzen dena, bikote harreman normatiboan oinarritzen den jeloskortasuna, non Natalia beste inorekin dagoela pentsatzeak izugarritzko gorrotoa eta mendeku gosea esnatzen duen. Gizezkoen ikuspegi maitasun erromantikoaren mitoei eragiten duten kalte izugarria da, gehienetan emakumeek pairatzen dutena.

• **Nor gehiago dago era batean edo bestean inplikatu?**

Irudien baimen gabeko banaketa ez da pertsona bakarraren ekimenez gertatzen. Beharrezkoa da beste batzuek ere parte hartzea, irudia pasatuz. Askotan oso ohikoa da irudiok bueltara aritzea denbora luzez norbaitek katea eteten duen arte. Gehienetan irudiok sare maskulinoan banatzen dira, albokoek jakitea ekidinez, eta hainbatetan aipatu dugun korporatibismoak paper handia jokatzen du hemen. Kasu honetan, beraz, nahiko erraza da ardura kolektiboa identifikatzea. Dena dela, arestian aipatu dugun alarma sozialean ez erortzeko, instituzioek eta bereziki hezkuntza instituzioek ahalegin berezia egin behar dute.

BENETAKO KASUAK

HEMEN BILDU DITUGUNAK UNIBERTSITATE ESPARRUAN GERTATU DIREN ERA EZBERDINETAKO INDARKERIA SEXUAL KASUAK DIRA. KASUOK PUBLIKOAK DIRA JADA ETA HORREGATIK ERABAKI DUGU HEMEN ERABILTZEA. BERAUEK IDAZTERAKO ORDUAN KOMUNIKABIDE EZBERDINETAN PUBLIKATU DIREN BERRIAK HARTU DITUGU OINARRI. ITURRIAK KONTSULTATU NAHI BADITUZU, [ONLINE JARRI DITUGU](#).

1. UNIBERTSITATEKO KARPA

Polemika iturri izan da NUPeko unibertsitateko karpa azken urteetan. Udazken partean, ikasturte hasiera jai erraldoi batekin ospatu izan dute Unibertsitate Publikoko ikasleek. Urte osoan aritzen dira jaialdi honen antolaketan, komisio propioa dutelarik.

2014an, lelo matxista zuten eranskailuak banatu zituzten han. *“Hoy follo, mañana juicio”* (Gaur larrua joko dut, bihar epaiketa) edota *“Bonitas piernas, ¿a qué hora abren?”* (Hanka ederrak, zein ordutan irekiko dute?) irakur zitekeen horietako batzuetan. Itsasgarriez gain, “txantxa moduan” *Eratzunaren brigada* deitzen ziren brigada batek parte hartu zuen, ustez laguntza eskaintzen zietenak emakume itsusi bat hurbiltzen zitzaioen mutilei. Besoko urdinak zeramaten identifikazio moduan.

Honen aurrean, unibertsitateko talde feministak lanketa bat abiatu zuen egun honen bueltan zein orokorrean unibertsitateko esparruan gaia landu nahian. Izan ere, makro-jaialdi honetan, sarri izaten dute sexu erasoen berri, haietako gehienak publiko egiten ez diren arren. 2016ko jaiari begira, protokolo bat prestatu dute karparako, euren gaia hurbiltzen zen edonorentzat laguntza eskaintzeko eta arazoa ikusgai egiteko. Eguna gerturatzeaz dela, jauzi kualitatiboa egiten dute sexu erasoen aurkako neurriei dagokienez: brigada feministak antolatzen dituzte jai eremuan, sexu erasoerik aurre egiteko eta, norbaitek behar izanez gero, laguntza emateko. Brigadetako kideek besoko moreak eramango dituzte, jendeak identifika ditzan. Egitasmoa, baina, ez dute jaiaren antolatzaileek prestatu, NUPeko Talde Feministak baizik.

Brigadak iragartzeko afixak jarri dituzte NUPeko campusean jaialdirako gutxi falta denean. Handik ordu gutxira, antolatzaileetako batzuk kendu egin dituzte, eta talde feministako kideei karpan sartzea debekatu diete, identifikatuz gero kanporatu egingo dituztela ohartaraziz. Debekuak, baina, hautsak harrotu ditu sare sozialetan, eta, kalapita mediatikoaren ostean, atzera egin dute antolatzaileek.

NUPek unibertsitate komunitate osoari heltzen dion sexu jazarpenaren aurkako protokoloa onartu berri du, baina jaialdia ikasleen batzordeek antolatzen dute enpresa pribatu baten laguntzaz. Honek asko zailtzen du unibertsitatearen esku-hartzea. Edonola ere, sentsibilizazio kanpainak bultzatzen saiatzen dira egun horietarako.

2. UNIBERTSITATEKO IRAKASLE BATEK HAINBAT IKASLE JAZARRI DITU

Madrileko Complutense unibertsitateak (UCM) master bateko hainbat ikaslek jarritako salaketak aztertzeari ekin zion 2017 hasieran. Master honetako ikasleok Paraguayko unibertsitateko ikasleak dira, eta masterra beraien unibertsitateko programa baten baitan egiten dute, irakaslegoaren formaziorako programaren baitan. UCMko Berdintasun Unitatean jaso zuten kexa, eta bertan aipatzen ziren “irakasle eta ikasleen arteko ohiko harremanaza haratago doazen” telefono dei, mezu eta komentarioak.

UCMk ikerketa prozesua abiatu du eta “alde guztientzako” (bai erasoak salatu dituztenak bai irakaslea) bermeak izan ditzala espero du. Lehen pausua azterketa teknikoa da (peritajea). Adituek egingo dute, gertaerak beraiek eta haien inguruan jaso diren informazioak aztertu asmoz. Prozesuak iraun bitartean, irakaslea masterretik alboratuko dute, nahiz eta graduan ematen dituen eskolekin jarraituko duen. Unibertsitateak dio ez duela inolako kezarik jaso graduko ikasleengandik eta beraz ezin duela justifikatu irakaslea behin-behinean gradutik alboratzea.

Unibertsitateko mugimendu feministako kideek diotenez, hartu diren neurriak gogorragoak eta integralagoak izan zitezkeen, eta duela gutxi martxan jarri den protokoloa pausu bat gehiago bezala kokatu dute. Jende asko itzalean dagoen errealitatea argitara ekartzeko ahaleginak gogora ekarri dituzte.

2017ko azaroan, unibertsitateak bere erabakia adierazi du: 14 hilabeterako lanetik alboratuko dute irakaslea, soldatarik gabe. Jazarpen egoera frogatutzat eman dute, eta egoera antzerako gehiago gertatu direla jakin izan dute ikerketa prozesuan zehar, bai masterreko ikasleekiko eta baita gradukoekiko. Aldi berean aipatu dute jazarpena gertatu zen masterren gehienak Latino-Amerikatik etorritako emakumeak direla ikasle gehienak, UCMren ustez horrek kasua larriago egiten duelarik.

UCMk protokoloa martxan jarri zuenetik, UCMk 15 kexa formal jaso ditu, irakasleen kontrako bost, ikasleen kontrako zortzi eta unibertsitateko beste langileen kontrako bi. Argitara atera den azken kasua ikasle batek salatu du formalki eta

komunikabideen aurrean ere. Salaketa “hasieran bere arazo familiarrekin oso ulerkorra izan zen irakasle” baten kontra izan da, zeinak ondoren “bere bulegoan soinekoa kendu nahi izan zion”.

3. ASKATASUN SEXUALEN AURKAKO ERASOA IKASGELETAN

Ikasle batzuek salaketa formala egin zuten, irakasle batek etengabeko komentarioak egiten zituelako, haien ustez iraingarriak: “gizartea engainatuta dago homosexualitatearekin, eta jada ezin daiteke horren inguruan iritzirik eman”, “homosexualak ez dira gizonak eta ezin dira zuzendu edo hezi”, “homosexualitatea kutsakorra da”... Berak idatzi eta argitaraturiko liburu batean, gainera, era berean kondenatu eta parekatzen ditu sodomia, trabestismoa eta bortxaketak, zoofilia eta homosexualitatea harremanak.

Hainbat kexa eta salaketa ostean, unibertsitateak irakaslea irakaskuntzatik kentzea erabaki zuen, ikerketa txostena irekitzen zitzaion bitartean lanetik baztertzuz. Bitarte horretan irakasleak bakarrik soldata oinarrizkoa jaso zuen, langileria publikoaren estatutu oinarrizkoan dioen bezala. Irakasleak bere burua defendatu zuen esanez berak soilik eztabaidarako datuak ematen zituela, eta ez iritzirik.

Prozeduraren amaieran, irakaslea bi arrazoiengatik zigortua izan zen: haietako bat, falta larria, zerbitzuari erangindako oztupoengatik eta beste bat, apala, bere liburu propioa irakaskuntza material gisa erabiltzearen. Hainbat egunkari lokal eta nazionalak aipatu bezala, sententziaren argudioa hontan datza: “en la presentación de los argumentos relativos a la homosexualidad [y a las] reiteradas manifestaciones ofensivas, cuando no zafias [...] sobre distintos colectivos sociales. Son impropias de un profesor universitario y contrarias a los principios constitucionales sobre la dignidad humana y los derechos y no tienen cabida, ni están amparadas, en la libertad de cátedra”. Baina bestalde, txostenak dio *gertaerak ez direla diskriminazio edo jazarpen saioak, ez daudelako frogarriak zentzu honetan*. Horregatik, irakaslea lanetik kendu eta soldata gabe uztea ikasturte horren amaiera arte bakarrik luzatu zen (2013-2014 urtea zen).

Hori ikaslek, protesta ekimen batean parte hartu zutelako identifikatuak izan zirela eta, bost hilabeteko kartzela zigor eskaerei aurre egin beharko diete, “desordenes públicos” egozten baitie epaileak.

4. ENTRETENITU EGITEN DEN IRAKASLEA

Boligrafoen zaratak eta Mariaren eskoteak entrenitu egiten dutela dio irakasle batek. Aipatutako ikasleak(neskak) matxista deitzen diolarik, irakasleak zaplaztekoa ematearekin mehatxatzen du. Ikasleak, beste bost ikasleak babesturik, dekanotzaren aurrean salaketa bat aurkezten du. Salaketa unibertsitateko Idazkaritza Orokorrera bidalia da, eta organo horrek espediente informatibo bat irekitzen du ikusi ahal izateko ea oinarririk dagoen instrukzio bat zabaltzeko. Irakasle bat izendatzen da kasuaren instruktore gisa eta inplikaturik dauden alde guztiak entzuten dira gertaerak aztertzeke asmoz. Prozedura horretan zehazten da irakasle horren kontra ez dagoela alde aurretiko inongo kexa formalik ez dekanotzan ezta berezko instituzioan ere.

Kautela-neurri gisa, prozeduraren hasieraren itxaronaldian, Maria klasez aldatu behar da.

Bitartean, irakasleak, bere aldetik, komunikatu bat igortzen du zehatz-mehatz azalduz neskek nola joan behar duten jantzitak klasera. Komunikatu horretan, besteak beste, honakoa dio: “Joku arauak aldatzen ditugu edota hezituak garen sexu-arauak aldatzen ditugu; bestela, gehiegizko eskotea ikustean jarraituko dut nerbioso jartzen”. Mariari barkamenak eskatzen dizkio zaplaztekoarekin mehatxatzeagatik eta azaltzen dio zerk erakarri zuen bere erreakzioa, alegia, “ez matxista deitu ziolako, baizik eta matxista nazkagarria deitu ziolako klasean”.

Lau aste beranduago, Generoaren eta Berdintasunaren masterreko ikasleek kamisetak eransten dituzte bularrak erakutsiz; ekitaldi horretan irakaslearen berehalako suspentsioa exijitzen da, ikerketa prozesuan zehar neurri prebentibo gisa, eta Mariari babes osoa eskaintzen diote.

Egun berean, unibertsitateak prozesuarekin jarraitzeko oinarri nahikoa dagoela aitortzen du, nahiz eta, sexu-eta sexu-arrazoia-, sexu orientazio- eta genero identitate-jazarpenaren aurkako prebentzio eta jokaera protokoloa oraindik aprobaturik ez egon. Irakaslea artikulu batean publikoki berresten da, esanez: “Ni ez naiz sexista; berdin dit gizon ala emakumea izatea exhibitzen dena, ezberdintasun bakarra zera da, niri azal femeninoak maskulinoak baino gehiago entretentzen nau, (testosterona) hormona konplikatu da; estimulatu eta motibatu egiten duen aliatu bat izan daiteke, baina etsairik okerrera ere izan daiteke, gizona zaugarri eta ahula eginez.

Instruktoarek Errektoretzara bidaltzen duen txostenean irakaslea zigortzeko proposamen bat egiten du eta, azkenean, salaketa egin zenetik sei hilabetera, unibertsitateak zigortzen du bi hilabeteko enpleguaren eta soldataren suspentsio batekin. Protesta egin zuten ikasleei ere espediente bat irekitzen zaie falta arina leporatuz; espediente horren ondorioz ikasgai baten edo batzuen matrikula eskubidea gal zezaketen, baita klaseetara joateko debekua edota ohartarazpen publikoa ala pribatua jaso ere.

Suspentsio hilabeteak iragan ostean, irakaslea normaltasunez itzultzen da klaseak ematera bere ordutegiak erakusten duen legez.

1.BLOKEKO DIAPOSITIBA-AURKEZPENAREN ERABILPEN-GIDA:

/ NOLA ERATZEN DIRA SEXU-INDARKERIAK UNIBERTSITATEETAN? /

BLOKE HAU TALDEAN LANDUTAKO FIKZIOZKO KASUETAN OINARRITUTA DAGO ETA, BERAZ, DIAPOSITIBA-AURKEZPENAREN HELBURUA JARDUERAREN AMAIERAKO BATERATZE-LANEAN MAIZ AZALDU DIREN ELEMENTUETAKO BATZUK BERRIKUSTEA ETA BIRPENTSATZEA DA.

DIAPO	EDUKIA	IRUZKINA
1	Azala	Unibertsitatearen, proiektuaren eta EBren logoa zein proiektuaren kodea agertzen dira. Aurkezpena proiektua amaitu ondoren erabiltzekotan, eskertuko genuke materiala zer proiektutatik hartu den aipatzea.
2	Kasuei buruzko eztabaida	Kasuei buruz eztabaidatzen dugun bitartean atzealdean edukitzeko diapositiba.
3	Kasuei buruzko eztabaida: bateratzea	Bateratze-lana egiten dugun bitartean atzealdean edukitzeko diapositiba. Garrantzitsua da eztabaidan ari garela eta/edo bateratze-lanean ari garela pantailari garrantzia kentzea; une horretan, parte-hartzaileek arreta beren ekarpenak egitean eta eztabaidatzean jartzea komeni baita. Halaber, garrantzitsua da ikastaroko dinamizatzaileak ahalegintzea ikasleen parte-hartzea orekatua izan dadin, ahalik eta pertsona gehienek parte har dezaten eta eztabaidak aberasgarriak izan daitezten.

DIAPO	EDUKIA	IRUZKINA
4	Kasuei buruz eztabaidatzea: zer analisi-eredu erabili dugu.	<p>Diapositiba honen bidez azalduko dugu analisia egiteko zer elementu kontuan hartu ditugun:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Identifikatutako indarkeria-mota: kasu bakoitzeko indarkeria-motaren sintesia, zer izen jarriko geniokeen. Ez da gauza bera zerbait uneko eraso dela esatea edo jazarpena dela esatea, jazarpen sexista edo izaera sexistarik gabeko jazarpena dela esatea... 2. Genero-kontuak eta botere-harremanak: sexu-indarkeriak zer testuingurutan gertatu diren kokatzen ahaleginduko gara, bai eta horietan zer egitura-elementuak parte hartu duten eta elkarri nola eragiten dioten identifikatzen ere (generoa, klasea, jatorria, adina, erakunde barruko estatusa...). Analisi horri esker, hain zuzen ere, kokatu ahal izango dugu arazoa jarrera pertsonaletatik harago eta proposatu ahal izango ditugu komunitate osoari eragingo dioten jarduketak eta neurri prebentiboak. 3. Lege-tipifikazioa: zenbait kasutan lege-tipifikazioaz hitz egitea interesatuko zaigu, baina estatu bakoitzak bere legeak ditu (gainera, aldakorrek) eta, kasu ugarietan, hainbat lege autonomiko. Horiek horrela, aurkezpenetan informazio hori ez sartzea erabaki dugu, eta unibertsitateak beren analisia egitera animatzen ditugu (hemen kontsulta dezakezue Kataluniako lege-analisia). Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea bidegabeak iruditzen zaizkigun portaera eta egoera ugari daudela legeak kontuan hartzen ez dituenak, baina horrek ez duela esan nahi horiei aurre egiteko ezer egin behar ez denik. 4. Esku hartzen duten beste eragile batzuk eta haien jarduketak. Atal honetan indarkeriak pertsonarteko bat-bat esparrutik harago aztertu nahi ditugu. Horretarako, egoeran zer pertsonak –bakoitzak modu eta maila desberdinetan– parte hartzen duten aztertzea proposatzen dugu. Horri esker, a) indarkeria-egoeren erantzukizun kolektiboa ulertzeko aukera izango dugu eta b) indarkeriei aurre egiteko eta hainbat mailatan elkarrekin lan egiteko (sentsibilizazioa, prebentzioa, gogoeta...) aliantzak zer pertsonarekin edo talderekin sor ditzakegun identifikatu ahal izango dugu.
5	Galdera sorta	<p>Diapositiba honetan galdera-sorta bat proposatzen dugu, egoera jakin bat hobeto ulertzeko/aztertzeke eta, ondorioz, hari dagozkion neurriak planteatzeko gidatza erabil dezakeguna. Ikus dezakezue, lotura zuzena dute aurretik aipatutako kategoriekin.</p>
6-17	Kasuen analisiak	<p>Diapositiba hauetan jaso duguna laburpen bat da, hain zuzen ere, kasuen analisiak jasotzen dituen dokumentuan ere (gida honetako material komunaren atala) kontsulta ditzakezuen kasuen analisisena. Aurkezpen honetan kasu guztiak daude: formakuntza bakoitzean erabilitako kasuak/kasurik hauta ditzakezue, eta gainerakoei jaramonik ez egin.</p>
18	Kasuen taula	<p>Formakuntza bakoitzean kasu-kopuru mugatua erabiliko dugun arren (hiru, bi, lau asko jota...), hemen kasu-sorta osoa jarri dugu, gure unibertsitateetan dauden askotariko sexu-indarkeriei buruz gogoeta egin ahal izateko.</p>

2. BLOKEKO DIAPOSITIBA- AURKEZPENAREN ERABILPEN-GIDA:

/ SEXU-INDARKERIAK ULERTZEA, TESTUINGURUAN JARTZEA ETA DEFINITZEA /

DIAPOSITIBA-AURKEZPEN HONEN HELBURU NAGUSIA INDARKERIEI ESPARRUA ETA DEFINIZIOA LANTZEA DA. BERAZ, BI HELBURU DESBERDIN HAUEK DITU:

ESPARRUA: SEXU-INDARKERIAK INDARKERIA MATXISTEN BARRUAN INTEGRATUKO DITUEN ULERMEN-ESPARRU BAT ERATZEA, ETA ESPARRU HORI KATEGORIA BAKAR BATERA MUGATU EZIN DEN ESPARRU KONPLEXUTZAT HARTZEA.
DEFINIZIOAK: BEHIN BETIKO DEFINIZIO BAT EMATEA BAINO, DEFINIZIOEK ZER GARRANTZI DUTEN ADIERAZI NAHI DUGU, BAI ETA NOLA MUGA DEZAKETEN (ADIBIDEZ, PROTOKOLO BATEAN) ERE INDARKERITZAT ULERTZEN DUGUNA ETA, BERAZ, INDARKERIA HORRI DAGOKIONEZ EGIN DEZAKEGUNA.

DIAPO	EDUKIA	IRUZKINA
1	Azala	Unibertsitatearen, proiektuaren eta EBren logoa zein proiektuaren kodea agertzen dira. Aurkezpena proiektua amaitu ondoren erabiltzekotan, eskertuko genuke materiala zer proiektutatik hartu den aipatzea.
2	Zertaz ari gara sexu-indarkeriaz hitz egiten dugunean?	Eztabaidari ekiteko, sexu-indarkeriak judizio moraletik harago ulertzeko zailtasuna aipa dezakegu. Maiz, iritzi publikoak aho batez adierazten du zerbait gaizki dagoela, baina horrek ez du esan nahi lantzen ari garenari buruzko ulermen komun eta sakona dagoenik, ez eta kausetan eta konponbide posibleetan ados jartzen garenik ere.
3	Non kokatzen da? Non kokatzen dugu geure burua?	Fenomeno baten ulermen-esparrua garrantzitsua dela aipatuko dugu, ez soilik kontu teoriko bat dela-eta (zer esparrutan kokatzen da), baita gertatzen zaiguna eta pertsonak egiten duguna nola ulertzen dugun adierazten duelako ere. Horiek horrela, garrantzitsua da parte-hartzaileei hausnarketa horren berri ematea. Beharrezkoa balitz, mota honetako galderak egin ditzakegu: nola definitzen duzu zeure burua? Nola ulertzen duzu zeure burua? Zerk mugatzen zaitu modu batera edo bestera jarduteko?
4	Etxea	Etxearen irudi bat daukagu. Etxe hori gizartearen sinboloa da. Egingo dugun lehen hausnarketa da inor ez dela etxetik kanpo bizi, denok gaudela modu batean edo bestean hartako txokoren batean. Hau da, inor ez da gizarte-prozesuetatik kanpo geratzen, nahiz batzuk prozesuak bazterretik bizi eta beste batzuk haien erdigunean egon. Gogoeta hori oinarri hartuta, etxe horretan geure buruak nola kokatzen ditugun planteatuko dugu. Zeren arabera amaitzen dugu gela batean edo bestean? Nor dago egongelan eta nor ganbaran? Kontua ulertzen lagunduko diguten zenbait kategoria definitzen ahaleginduko gara (generoa, sexualitatea, arraza, gizarte-klasa...) eta sexu-indarkeriekin lotuko ditugu: zer kokapenetan dago aukera gehiago indarkeria jasateko? Pentsatu mugikortasunean ere: zer kategoriak du aldatzeko aukera gehiago? Hausnarketarako unea da hau: aurkezpena baliagarria izango zaigu eztabaida bat edo ideia-jasa bat hasteko (minutu gutxikoa). Horretarako, aurreko diapositibako proposamenean oinarri gaitzeko: geure buruak nola definitzen eta ulertzen ditugun hausnartu dugu horietan.
5	Interseksionalitateari buruzko irudia	Aurreko hori argitzen duen irudi bat daukagu hemen: erabili baliagarria izango zaizuela uste baduzue (edo bilatu besteren bat).
6	Lucas Plateroren aipua	Aipua darabilen interseksionalitatearen planteamenduak kategoria horiek elkarlotzen ditu, ez ditu aipatzen batuketa huts gisa. Interseksionalitatearen kontzeptua ez dugu era teorikoan txertatuko, baizik eta hurbileko azalpenen bat erabilita. Kontuan hartu beharbada askori kontzeptua ez zaiela ezaguna egingo. Azalpena prestatzeko material gehiago behar baduzue, bi baliabide bibliografiko hauek baliagarriak izan daitezke: "Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada" (Lucas R. Platero Mendez, 2012 Bellaterra) eta interseksionalitateari buruzko sarrera "Barbarismos queer y otras esdrújulas" (Lucas R. Platero Mendez, María Rosón y Esther Ortega, 2017, Bellaterra) liburuan.
7	Arnulfo Medinaren "La casa maraña" eskultura	Zer harreman dugu interseksionalitate kontzeptuarekin? Sexu-indarkeriari buruzko gure iruditerian azaltzen al da? Eta hari buruzko gure politikan? Eskultura hori gustuko dugu metafora bikoitza delako: oinarrian mordoilo bat dauka, baina egitura identifikagarri bat eratzen du. Gogoeta horren bidez transmititu nahi dugun ideia da, konplexuak izan arren, botere-harremanak arau eta zapalkuntza konkretuetan gauzatzen direla.

DIAPO	EDUKIA	IRUZKINA
8	Definizioak: mugatzeko definitzea?	Definizioei buruz hitz egitearen garrantzia ez da haiek ixtea, baizik eta gai bati heltzeko moduari nola eragiten dioten kontziente izatea.
9	Definizioak: definizioei buruz ari garenean edo haiek lantzen ditugunean kontuan hartzeko abiapuntuak eta gaiak	Diapositiba hau aurkeztu baino ez dugu egingo: ez da eztabaida bat hasteko. Zenbait ideia zerrendatu baino ez du egiten, definizioei buruz pentsatzeko aintzat hartu beharrekoak.
10	Gure jardunbideetan eta kanpainen, zer modutan adierazten dira definizioak	Erabiliko ditugun adibideak kanpainen irudiak eta oinarri dituzten definizioei buruz egiten ditugun interpretazioak dira. Argi utziko dugu beste interpretazio batzuk ere egin daitezkeela, helburua batzuen (irudiak) eta besteen (definizioak) arteko lotura azpimarratzea dela. Ez dugu adierazi nahi kanpaina horiek gaizki daudenik, baizik eta beren definizioek mugatzen dituztela eta, beraz, helburu espezifikoan araberakoak direla. Noski, irudi horien ordez beste kanpaina batzuk jar daitezke, deigarriak suertatu zaizkizuelako edo hurbiltasunagatik garrantzitsuak iruditzen zaizkizuelako, adibidez.
11	Testuinguruan jartzeko moduetako batzuk	Diapositiba hau garrantzitsua da oso ondo ematen duelako adierazi nahi dugunaren berri, sintetikoki. Azaldu koadroa xehetasun guztiari arreta jarri gabe. Irakurketa-erreferentziaren bat eman dezakegu norbaitek nahi balitu. Beste behin, definitzearen garrantzia eta definizioaren izaera politikoa adieraziko ditugu; horregatik emango ditugu hainbat aukera eta azpimarratuko ditugu horietako bakoitzari lotutako ikuspegiak. Koadroak ibilbide historiko bat ikusteko ere balio digu, bai eta definizioak urteak iragan ahala aldatu egin direla adierazteko ere: etxeko indarkeria izan zen lehenengo, genero-indarkeria gero (generoaren faktorea txertatu eta kontzeptua politizatu egiten da) eta indarkeria matxista azkenik (zabaltu eta birpolitizatu egiten da: garrantzitsua da adierazmolde horren erabilera mugimendu feministen aldarrikapen baten ondorioa dela azpimarratzea, adibidez, Kataluniako legean, Nafarroakoan...). Indarkeria sexistaren kontzeptua oso ohikoa den indarkeria matxistaren aldaera espezifikoetat hartzen da. Atal hau oso lotuta dago gauzak ulertzeko moduak eta definizioek Espainiako estatuko testuinguruan izan duten zenbait aldaketarekin; beraz, formakuntza-eredu hau beste testuingururen batean erabiltzen ari baldin bagara, garrantzitsua da hura birkokatzea.
12	Genero-indarkeri(ar)en definizioa	Irakurri GAP work -eko definizioa: hizkuntza nahiko ulergarrian idatzita dago. Aurreko koadrokoa zabaltzen du.
13	Sexu-indarkeria ulertzea	Hasierako galdera berrir planteatuko dugu: “zertaz ari gara sexu-indarkeria diogunean?”. Eta gure hurbiltzetaren bidez erantzunoko diogu galderari, proiektu hau ikuspegi horretan inguruan antolatuta dela argi utzita. Koadroan genero-indarkeriak edo indarkeria matxistak agertzen dira (azpimarratu izen desberdina baldin badute ere, bi-bien ikuspegia oso antzekoa dela), eta horien barruan indarkeria sexistak. Sexu-indarkeriak bi horien artean daude, alderdi desberdinekin zerkusua duten indarkeria mota berezituak: gorputzarekin, pertsonen arteko kontaktuarekin... Globoaren zati handiena indarkeria sexistaren aldean kokatzen da, izan ere, gizon/emakume hierarkian emakumeek gehiagotan jasaten dituzte askotariko indarkeria sexistak: erasoak, sexualizazioak, sexu-askatasunaren mugapenak, objektu bilakatzea, jazarpenak... Hala ere, badira subjektu hegemonikoak ez direlako sexu-indarkeria espezifikoak jasaten duten beste subjektu batzuk ere, kasuetan ikus dezakegunez. Gayek, transek, gizon femeninoek eta beste batzuek, adibidez, gainsexualizazioa (gizon gayen kasuan), beren genero-adierazpenagatik indarkeria (trans pertsonak eta trans izan gabe genero-arauak betetzen ez dituztenak)... jasaten dute. Maiz, indarkeria horrek izaera sexual nabarmena izaten du, Jordiren kasuan, adibidez. Garrantzitsua da argitzea kategoriak sexu-indarkeriak ulertzeko eta, bereziki, ahalbidetzen dituzten erakundeekin lotzeko erabiltzen ditugula, pertsonarteko harremanetatik harago erreakzionatze eta prebenitze aldera, EZ dugula kategorizatzeagatik kategorizatzen, ez eta askotariko indarkeria-motak hierarkizatze ere. Indarkerien larritasuna haien ondorioetan dago, ez haien kategorizazioan.
14	Indarkeria matxistaren eta sexistaren definizioak	Gipuzkoako Foru Aldundian egun erabiltzen dituzten definizioak dakartzagu hona, erabilgarriak balira ere. Gure ikuspuntuarekin bat egiten dute hein handi batean. Dokumentu osoa, euskaraz eta gaztelaniaz, esteka honetan aurki daiteke. Laguntza-dokumentutzat erabil daiteke, baina horrek ez du esan nahi beti eta kasu guztietan harekin ados gaudenik.
15	Definizioekin lanean Protokoloetako eta beste testu arautzaile batzuetako hainbat definizio	Hauek dira “Definizioekin lanean” jardueran erabiliko ditugun definizioak. Inprimatzeko fitxan aurki ditzakegun arren, hona ere ekarri ditugu. Taldetan lan egiten badugu, interesgarria da bateratze-lana egin bitartean definizioak pantailan edukitzea.
16-22	Hainbat definizio	Definizio horien ordez, jardueraren fitxan esan bezala, egokioak iruditzen zaizkizuen beste batzuk erabil ditzakezue: lanean ari garen unibertsitateetako definizioak, alderdi bereziki arazotsuren bat daukan definizioaren bat, edo bereziki egokia daukanen bat... Komeni da definizio bakoitzaren alderdi zehatz bat azpimarratzea, oinarriko edo txarrerako.
23	Aurkezpenaren amaiera	

ANTZERKI-FORORAKO GIDOIA

PERTSONAIAK

- **A IRAKASLEA: ANE**
- **B IRAKASLEA: LAURA**
- **DEPARTAMENTUKO BURUA: EDURNE**

Anek Laurari kontatuko dio, oso arduraturik, ikasle batekin izandako elkarrizketa.

Antza denez, klasea ematen ari zela, ikasle bat beste batekin hitz egiten zegoen eta une batez neska negarrez hasi da eta bi ikasleak klasetik arrapaldan atera dira. Anek, hau ikusita klasea eten eta beraien atzetik joan da. Pasilloan zeuden biak oso urduri eta haietako bat negarrez. Galdetu die zer gertatzen den eta erantzun diote ez diotela kontatu nahi, nahiago dutela beraientzat gorde, baina pentsatzen ari direla unibertsitateko norbaiten aurka salaketa jartzea.

Kontakizun honek dirauen bitartean Laurak bere eginbeharrekin jarraitzen du, bere laneko mahaitik mugitu gabe eta burua apenas biratuz Aneren kontakizunak iraun bitartean. Azkenean “ba ez dakit zer esan” erantzun dio.

Ane berria da fakultatean, eta beraz esperientzia handiagoa duen norbaiti galdetzea ona izan daitekeela pentsatu du. Edurenerengana joan da, departamentuko buruarengana. Berriz ere gertatutakoa kontatu dio, apur bat lasaiago baina oraindik oso urduri. Edurnek kasua entzun eta garrantzia kendu dio, esanez ikasleen kontuak batzutan oso nahasiak direla, adina eta egoeragatik. Gomendatu dio gaia alboratzea.

PERTSONAIAK HONELA DAUDE:

ANE: OSO URDURI, GALDUTA, ZER EGIN JAKIN GABE, ZIURTASUN GABE
LAURA: LANPETUTA, DESPISTATUA, ERREAKZIO GABE, ESTRESATUA
EDURNE: LASAI, AFEKZIO GABE, ARDURATU GABE

ENTZUTE AKTIBO ETA KOKATUA

/ ABIAPUNTUAK /

LUCIA-FELIX

PERTSONAIK

- **Hizketan ari den pertsona:** Lucia (Gradua amaitzen ari den ikaslea). Oso urduri, haserre.
- **Entzuten ari den pertsona:** Felix (Luciaren graduko ikasketa arduraduna)

Luciak Felixi kontatuko dio, oso arduraturik eta zer egin ez dakiela, bere praktiketako arduradunak etengabe bere argazkiak bidaltzen dizkiola whatsappetik. Whatsappeko argazkiak erakutsi, eta berak aipatu bazela, bere lankidearen aisialdiko argazki pila bat ikusten ditu. Felixek praktiketako arduradunarekin harremana dauka, ezagutzen du.

AGURTZANE-ALBA

PERTSONAIK

- **Hizketan ari den pertsona:** Agurtzane (unibertsitateko irakaslea, Albaren bulegokidea). Hasieran lasai, gero larri.
- **Entzuten ari den pertsona:** Alba (unibertsitateko irakaslea).

Albak azken egunetan zerbait arraroa somatu du Agurtzanerengan. Telefonoz hitz egitera ateratzen da sarritan, zerbait entzun duen arren, ez dio galdetu nahi izan ea ondo dagoen. Agurtzane, konturatu egin da, eta zera kontatzen dio: bere lankide ohiari salaketa bat jarri diola, sexu erasoengatik. Albak ez du Agurtzaneren lankide ohi ezagutzen, duela gutxi heldu baita unibertsitatera, baina Agurtzane eta lankide hau hainbat bilera eta kongresuetara elkarrekin joaten zirela badaki.

MAITANE-ANTTON

PERTSONAIK

- **Hizketan ari den pertsona:** Maitane (Administrazioko langilea, Erikarekin harremana duen pertsona). Larri, urduri dago.
- **Entzuten ari den pertsona:** Antton (unibertsitateko irakaslea, Erikaren lankidea). Oso lasai dago.
- **Erika :** Unibertsitateko irakaslea, ez dago presente.

Asteazkeneko kafe-orduak, Maitanek zera entzun du: unibertsitateko ikasleen artean Erikaren argazkiak zabaltzen ari direla, argazkietan Erika tripaz gora biluzik agertzen delarik. Antton sarritan joaten da idazkaritzara, eta Erikaren lankidea denez, maitane idazkariari kontatu dio entzundakoa lagunduko diolakoan.

3. BLOKEKO DIAPOSITIBA-AURKEZPENAREN (POWER POINT) ERABILPEN-GIDA

DIAPOSITIBA-AURKEZPEN HONEN HELBURU NAGUSIA LEHEN ERANTZUN BATEN BOST FUNTSEZKO IDEIA LANTZEA DA. AURREKO JARDUERAKO ESPERIENTZIA ETA GOGOETAK ABIAPUNTUTZAT HARTUTA, AURKEZPEN HAU IZANGO DA BLOKEAREN AMAIERA, ETA ZENBAIT IDEIA GARRANTZITSU AZPIMARRATZEKO ETA HAIETAN SAKONTZEKO BALIATUKO DUGU.

DIAPO	EDUKIA	IRUZKINA
1	Azala	Unibertsitatearen, proiektuaren eta EBren logoak zein proiektuaren kodea agertzen dira. Aurkezpen hau proiektua amaitutakoan erabiltzekotan, eskertuko genuke materiala zer proiektutatik hartu den aipatzea. Bloke honetarako Sortzen aholkularitza-enpresako Norma Vazquezen laguntza eta aholkuak jaso ditugu.
2	Prozesuan kontuan hartu beharreko jarraibideak	Ez dago formula magikorik. Errepikatu garrantzitsua dela sexu-indarkeriarekin zerkusia duen edozein prozesuri adi egotea eta haren aurrean ikuspegi kritikoa edukitzea. Lehen arretaz ari garenean, garrantzitsua da kontuan hartzea ikasitako aholku eta ideia guztiak ez zaizkigula baliagarriak izango une guztietan. Sexu-indarkeria kasu baten aurrean, pertsona edo kolektibo batek hainbat arrazoi direla medio jo dezake irakasleengana edo unibertsitateko beste eragile batzuegana. Lehen pertsonan kontatutako kasu bat izan daiteke, norbaitek jazarpenen bat edo abusuaren bat jasan duela sentitu duelako; edo zeharka eman dezakete sexu-eraso edo -jazarpen baten berri. Horrek kontua zailtzen duten elementuak eransten ditu, aintzat hartu beharrekoak.
3	Lehen erantzun bat emateko jarraibideak (irudi lineala)	Gogorazi material hau prestatzeko, edukia hainbat profesionalekin kontrastatu dugula, esku-hartzeen eremuan, mugimendu feministan eta abarrean zuzenean lanean ari diren profesionalekin hain zuzen ere. Lehen erantzun baterako garrantzitsuak diren bost elementu planteatuko ditugu: hautematea, entzutea, zaintzea, laguntzea eta ebaluatzea. Elementu horiek linealki ordena daitezke eta, izatez, hori da normalean bururatzen zaigun irudia, logika kronologikoari jarraiki: zerbait gertatzen dela hautematen dugu, behar duenari entzuten dugu, behar duena zaintzen dugu, laguntzen diogu eta, prozesuaren amaieran, ebaluazioa egiten dugu.
4	Lehen erantzun bat emateko jarraibideak (espiral itxurako irudia)	Hala ere, gure eskarmentuaren arabera, prozesuaren irudia espiral baten antzekoagoa da, ziur asko. Litekeena da, adibidez, egoera bat ez hautematea norbaitek kontatzen digun arte edo behar duenari hasiera batean egingo ez genukeen bezala laguntzea, behar besteko arreta jartzen badugu eta gure esku-hartzea garatu ahala ebaluatzen badugu. Gero eta hobeto entzun, orduan eta ebaluazio hobe egingo dugu; norbait zaintzeak entzuteko beste modu batzuetarako aukera ematen digu... Elementu horiek aldiberekoak dira eta elkarri eragiten diote. Beraz, ez dira faseak, aintzat hartu beharreko elementuak baizik.
5	HAUTEMATEA Sexu-indarkeriak hautematea beti da esanahi a egoztea Nola hautematen ditugu sexu-indarkeriak? Zer ondorioekin lotzen ditugu? Hautematen dugu beldurraren transmisioa? Nola balioesten dugu erasoaren larrirasun-maila?	Indarkeria-kasu bat hautematen dugunean... Sexu-erasoak modu batean edo bestean ulertzen eta balioesten ditugu, eta esanahi berria ematen diegu. Horrek ondorioak ditu bai gugan, bai erasoak kontatu digun pertsonarengan. Gure ikuspuntuaren arabera mota bateko sexu-erasoak bizitzan gerta dakigukeen okerrena baldin bada, larrirasun-maila hori emango diogu gertaerari. Horrek ez du esan nahi lehen pertsonan bizi izan duenak horrela sentituko duenik eta, beraz, ez da beharrezkoa bizipena jasan duenak ematen diona baino larrirasun handiagoa transmititzea. Bestela berbiktimizatu egin dezakegu pertsona hori. Alde horretatik, garrantzitsua da kontuan edukitzea eraso baten larrirasuna neur daitekeela haren eraginaren arabera ere, eta ez aurretik definitutako intentsitate- edo larrirasun-eskalen arabera. Pertsona batek intentsitate txikikotzat jotako eraso bat jasaten badu (adibidez, komentario bat sare sozial batean), ezin dugu haren eragina neurtu kalitetutako pertsona nola sentitzen den aintzat hartu gabe. Baliteke beldurra eragitea, edo ez eragitea, beharbada asko haserretuko du, edo gutxi, agian hamaika aldiz gertatu zaio lehenago ere, edo ez... Indarkeriari eta haren testuinguruari buruzko gure ikuspegia oso lotuta dago zerbait egiten dugunetan hartuko ditugun erabakiekin: zenbait portaera naturalizatzen baditugu, posible da pasatzen uztea. Funtsezkoa da "intentsitate txikiko"tzat har ditzakegun sexu-indarkeria kasuak ez normalizatzea (begiradak, komentarioak, txiste iraingarriak...); horretarako, garrantzitsua da berehalako erantzuna ematea, gure haserrea eta gaitzespena adierazita. Alde horretatik, beharrezkoa/gomendagarria da mota horretako egoeraren bat hautematean, hari buruz testuinguru formaletan (sailtako batzordeetan, unitateetako bileretan...) eta informaletan (ikasleen biltzarretan, kafetegian...) hitz egitea, konpromiso kolektibo bat hartze aldera erantzun egokiak bilatzeko eta arazoa ez larriagotzeko.

DIAPO	EDUKIA	IRUZKINA
5	<p>HAUTEMATEA</p> <p>Sexu-indarkeriak hautematea beti da esanahi a egoztea Nola hautematen ditugu sexu-indarkeriak? Zer ondorioekin lotzen ditugu? Hautematen dugu beldurraren transmisioa? Nola balioesten dugu erasoaren larritasun-maila??</p>	<p>Horrez gain, kontu horri buruzko gaikako saioak txerta daitezke ikasgelan, administrazio eta zerbitzuetako langileentzako eta irakasle eta ikertzaileentzako formakuntzetan eta ikasleek antolatutako jardunaldietan. Zenbait portaera sexual moralizatzen baditugu, litekeena da erasotzailearen aurka egin beharrean, eraso jasan duenaren kontra egitea.</p> <p>Garrantzitsua da sexu-indarkeriez ari garenean beldurraren transmisioa aintzat hartzea. Sexu-indarkeriak zerbait larria direla iruditzen bazaigu ere, horrek ezin du ekarri kontuz ibili beharra emakumeen gain edo beste subjektu ez-normatiboen gain jartzea. Joera horrek hainbat ondorio izan ditzake: emakume guztiak beldurtu egiten direla edo beldurtu behar luketela onartzea, zenbait egoera beti arriskutsutzat edo arazotsutzat ezaugarritzea edo emakumeen desira zenbait praktiketara mugatzea.</p>
5	<p>ENTZUTEA</p> <p>Zergatik da garrantzitsua entzute aktiboa lantzea? Nola bat eginik lan egin? Nola egin behar ditugu galderak? Nola hurbildu behar dugu pertsonarengana? Zein dira entzuteko aukerak?</p>	<p>Aurreko jardueretan landu dugunari jarraiki, entzute aktiboa eta kokatua oso garrantzitsua da arreta eta laguntza emateko. Horri esker, gugana jotzen duen pertsona zer egoeratan dagoen eta zer testuinguru pertsonal-emozionaletan dagoen definitu ahal izango dugu. Kontakizuna ordenatzen lagun diezagok, baina ez dugu parean daukagunari zer gertatu zaion kontatzen amaitu behar. Pertsona horrekin bat eginik lan egiteak esan nahi du komunikaziorako eremu komun bat aurkitzea, gure ikuspegiak ardatzuko ez duena, baina ezta guztiz beste pertsonarenak ere; hala ere, pentsatu behar da bera izango dela gidaria. Lehen laguntza psikologikoak</p> <p>Entzuten dugunean ez gara ari esku-hartze psikologiko bat egiten. Garrantzitsua da ez nahastea lehen entzute-eremu bat ematea eta eremu terapeutiko bat ematea. Eremu hori beharrezkoa balitz, profesional batengana bidera dezakegu gugana jo duen pertsona. Hala ere, garrantzitsua da lehen entzute horretarako zenbait jarraibide edukitzea.</p> <p>Gorputz-hizkuntza lantzea funtsezkoa da</p> <p>Bat eginik lan egiteaz hitz egiten dugunean, sintonian egoteaz ari gara, eta oso adi egoteaz. Sintoniak zu hurbiltzea eta bera urruntzea ere esan nahi du. Baliteke neska batek oso urduri jarri eta hitz bat ez erabiltzea, eta haserretu egin daiteke zuk erabiltzen baduzu. Edo, aitzitik, bere hizkera erabiltzen ez baduzu haserre daiteke. Izan ere, teoria jakin dezakegu, baina gero, praktikan, blokeatu egiten gara.</p> <p>Parean daukaguna erabiltzen hasten den hizkerari eustea</p> <p>Entzuten dugunean, geure lotsak eta gauzei hitzak jartzeko gaitasuna ere lantzen ditugu. Adibidez, erasoak kontatzen ari zaigunak hizkera oso esplizituaz egiten badu (“bere buztanaren argazki bat bidali zidan”), ez genuke hizkera neurritsua eta kriptikoa erabili behar (“eta zure gauzaren irudi bat bidaltzeko eskatu al zizun?”). Noski, berdin gertatzen da aurkako kasuan ere. Ez dugu aurrean dugunaren hizkerarekin mimitizatu behar, baina garrantzitsua da ez erabiltzea ez gehiegizko urruntasuna sortuko luketen hitzak, ez gertutasun faltsua sortuko luketenak.</p> <p>Nola galdetu</p> <p>Esparru oso orokor bat har dezakegu abiapuntutzat eta gero xehetasunei heldu. Hala ere, garrantzitsua da kontuan hartzea ez ditugula xehetasunak eskatzen kontakizuna erreala, koherentea eta ordenatua den frogatzeko. Baliteke ez izatea, eta gure elkarriketari esker hura ordenatzen lagun badezagok, primeran; baina begirunez. Ez da gure lana poliziak edo detektibeak izatera jolastea eta gezurretan ari zaizkigun jakitea, horixe baita sexu-indarkeriekiko gizarte-joera nagusia: emakumeek gezurra esaten dute, neskatilek gauzak asmatzen dituzte.</p> <p>Zeure burua defendatu al zenuen?</p> <p>Kasua ikertzeak ez du esan nahi inor galdekatzea. Halaber, ez da enfasia eraso jasan duenaren ekintzetan jarri behar, maiz hura errudun egiten baitute: “defendatu al zenuen zeure burua?”, “hari begira al zeunden?”, “guztiz gay agertzen zara haren aurrean?”... Balidurike galdetuko ez ditugun gauzak direla, baina ohikoa da elkarriketa batean halakoren batek ihes egitea. Garrantzitsua da adi egotea.</p> <p>Gure hiztegitik klixek ezabatzea:</p> <p>Eraso bat jasan duen norbaitek ez dio uzten errealitatea den eran hautemateari eta hura lasaitzea gure zereginetako bat baldin bada ere, “ez kezkatu”, “zu lasa” edo “dena ondo aterako da” esamoldeen antzekoekin tematzeak ez du beti laguntzen. Ez da gauza bera “laguntzeko ahal dudana egingo dut eta ondoan izango nauzu behar duzunerako” esatea.</p>
6	<p>ZAINTZA</p> <p>Zertaz ari gara zaintza diogunean? Nola sostengatzen da laguntza-sarea? Nola eta nork eskaintzen du laguntza? Non kokatzen da autozaintza?</p>	<p>Orduak eman ditzakegu zaintzei eta zaintzeak esan nahi duenari buruz hizketan, baina gure lanaren testuinguruan, zenbait ideia baino ez ditugu aipatuko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gugana jo duen pertsona babesteak eta zaintzeak ez du esan nahi guk geuk lehen pertsonan babestu eta zaindu behar dugunik. Unibertsitatean gerta daitezkeen kasu bat da ikasle batek kontatzea jazarpen lesbofoboa jasaten duela eta lur jota dagoela. Ez du esan nahi 19 urteko (adibidez) ikasle horrek eta nik (46 urte ditut) lagun minak bilakatu behar dugunik, baizik eta laguntza eta zaintza-eremuak badituela ziurtatzen ahalegindu behar dudala. • Ez dugu segurutzat jo behar jakintzat ematen ditugun babes-sareak kasu guztietan baliagarriak izango direnik. Familiek ez dute zertan eraso baten ondoren laguntza onena izan, adibidez, biktima errudun egiten badute. Erasoren ondoren gugana jo duenarentzat laguntza-eremuak badaudela ziurtatu behar dugu, baina harekin hitz eginda, ezer ziurtat jo gabe. Galdetu egin behar da. • Zaila da babes-sare bat eratzea, horrek pertsona gehiagok kasua ezagutzea baitakar. Gugana jo duenarekin adostu behar da beti. Anonimotasunari eustea garrantzitsua den arren, ez da diskrezioarekin eta “gauzak isilean gordetzea”rekin nahastu behar. • Norbait zaintzeak ez du esan nahi hari gaitasuna kentzea, ez bere kabuz aurrera egin ezin balu bezala tratatzea. • Zaintzeak higitu egiten gaitu. Mugak jartzen eta zaintza-beharrak gizarteratzen jakin behar dugu.

DIAPO	EDUKIA	IRUZKINA
7	<p>LAGUNTZEA</p> <p>Nola egin laguntza adostua izateko? Nola laguntza eskaini profesional batekin saioaren bat eduki ondoren (larrialdiak, psikologia-terapiak, forensea...)? Nola antolatuko dugu kaltetutako pertsonaren sarea? Nola minimizatu kaltea? Zer erreakzio dugu hirugarren pertsonetik (sarean ez daudenak)?</p>	<p>Sexu-indarkerien kasu bati aurre egitea norbaiti hainbat unetan laguntzea da. Horrek esan nahi du maiz beste leku, zerbitzu edo pertsona batzuetara bideratuko dugula pertsona hori, kontu berezituarekin lagun diezaioten.</p> <p>Kasu eta leku bakoitzean egoera desberdina izango da, baina hemen dituzue baliabideetako batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Unibertsitateko zerbitzuak: psikologia-aholkularitza, berdintasun-batzordeak, behatokiak, idazkaritzak eta dekanatzak... -Osasun-zerbitzuak: beharrezkoak izan daitezke zenbait kasutan eta, maiz, ofizialki/judizialki salaketa bat jarri nahi izatekotan txosten erabilgarriak egiten dituzte. -Polizia edo epaileak: gure imaginarioan esku-hartzea salaketak arazten badu ere, ez da aukeretakoa bat besterik, eta ondo balioetsi behar da pausoa eman aurretik. -Zerbitzu espezializatuak: zenbait lekutan, adibidez, sexu-indarkerian adituak diren terapeutak aurki ditzakegu. -Gune komunitarioak: logika komunitarioen arabera jarduten duten eremuei garrantzia eman behar zaie, laguntza hutsetik harago, ahalduz kolektiboa sustatzen dutenei. Eremu horiek dira talde feministak, LGTBI taldeak, emakumeen etxeak, kezka feministak dituzten arte-sorkuntzarako eremuak... <p>Hala ere, oso garrantzitsua da ez segurutzat jotzea eremu edo zerbitzu horiek une guztietan gune lagungarriak izango direnik. Horietako asko bigarren biktimizazio bat gertatzen diren lekuak, leku zailak eta, are, begirune gutxiak izan daitezke. Laguntzeak alderdi horiek kontuan edukitzea ere esan nahi du, bai eta une horietan laguntza ematea ere. Adibidez, salaketa bat jartzeak bizipen osoa birbizitzea eta derrigorrez gaiarekin sensibiltzatuta ez dagoen norbaiti kontatu beharra ekar dezake. Haietara bideratzeak ez du esan nahi jendea zerbitzu espezializatuaren eskutan bakarrik uztea. Dena den, garrantzitsua da laguntza hori adostua izatea, ez gure irizpidea inposatzea zer neurri hartu behar diren eta haien segimendua nola egin behar den erabakitzeke.</p> <p>Erasoa jasan duen pertsonaren inguruan laguntza-sare informala antolatzekotan, garrantzitsua da hauetarako eremuak sortzea: neurriei buruz hitz egiteko eta haiek adosteko, zereginak banatzeko eta bakoitzak zertan lagun dezakeen zehazteko. Ez du mundu guztiak gauza guztietarako balio.</p> <p>Eremu horrek balio dezake hauek argi uzteko ere: eraso jasan duenak gertaera zer neurritan eman nahi duen jakitera, nori kontatuko diogun eta nori ez. Hala ere, horrek ez du ziurtatzen jendea behar baino galdera gehiago eginez hurbilduko ez zaigunik, edo hainbat modutan aurka egingo ez digutenik: badakigu erasoak salatzea ez dela mundu guztiaren gustukoa. Garrantzitsua da laguntza-taldeak hori aintzat hartzea eta zer erreakzio eduki pentsatzea.</p> <p>Gure lana da, halaber, beti errazak izango ez diren erabakiak hartzea. Kaltetutako pertsonari adierazpen larriak antzematen badizkiogu egoeraren bizipenari dagokionez (ondorio psikologikoak eta/edo fisikoak, beldurra, deserosotasun handia...), zerbitzu batzuk edo besteak erabili beharko ditugu.</p>
8	<p>EBALUATZEA</p> <p>Zergatik da garrantzitsua ebaluazioa? Nola eta noiz ebaluatu behar dugu prozesua?</p>	<p>Garrantzitsua da hartzen dugun erabaki bakoitzak ondorioak dituela onartzea: eraso bat jakitera emateak, unibertsitateko edo unibertsitateaz kanpoko organo ofizial batean salatzea, terapia mota bat edo beste bat aukeratzea... Ohikoa da prozesuen amaieran hartutako erabakiak eta horien ondorioak ebaluatzea. Aldiz, prozesuak martxan dauden bitartean haiek ebaluatzeke unek topatzen baditugu, garaiz egongo gara gauzak errazte aldera norabidez aldatzeko.</p> <p>Eskuarki, erasoak jasan dituzten pertsonen laguntza ematen diegunak, baita unibertsitate-eremuan ere, bata bestearekin gutxieneko konfiantza daukagun jendea izaten gara, beraz, gutxieneko konplizitate daukagun jendea. Horrek ez du eragotzi behar, ahal den heinean, une batzuetan mahaiaren bueltan bildu eta egin dugunaz eta egin gabe utzi dugunaz ohar batzuk hartzea.</p> <p>Oraindik, oso gutxi dakigu zer estrategia izan diren egokiak, zer estrategiak sortu dituzten arazoak eta zer estrategia izan diren kaltegarriak sexu-indarkeria egoerei aurre egiteko. Horiek horrela, garrantzitsua da, ahal den heinean, eta beti erasoak jasan dituztenek eskatutako pribatutasun-mugak errespetatuta, gure esperientziak partekatzea. Ez da beharrezkoa erasoak xeheatasun osoz kontatzea: ohituta gaude telebistako eta beste medio batzuetako morbo horretara. Helburua bizitako esperientziak eta erabilitako estrategiak minimoki sistematizatzea da, nahi duenak ikasgaitzat erabili ditzan.</p> <p>Halaber, gure jarduna ebaluatzeke, garrantzitsua da gure ingurunea kontuan hartzea eta prestatuta egotea gauzak guk nahi bezala aterako ez balira ere. Sexu-indarkeriekiko sensibiltzazioa hazten ari baldin bada ere, oso urrun gaude aldeko testuinguru bat izatetik. Funtsezko sinesmenak hor daude oraindik, aurreiritziak ere bai, eta unibertsitatea eta beste erakunde batzuk ez daude batera prest kontu horiei aurre egiteko. Horiek horrela, ebaluatzeak hobeto zer egin genezakeen eta zer ez bereizte ere badakar, baina aurrerantzean esku-hartzeko beldurra sortuko diguten erruduntasunak eragin gabe.</p>
11	<p>Zein dira ikusten diren ekintzak?</p>	<p>Diapositiba hau (hautazkoa da) ikusten diren eta ikusten ez diren zereginen buruz pentsatzeko unea da. Babes- eta laguntza-prozesu bati buruz pentsatzen dugunean, kontu bat nagusitzen da: salaketa. Komunikabideek ere alderdi horri buruzko informazioa ematen digute bereziki sexu-indarkeria kasuen berri ematen dutenean (salaketarik ba al dagoen, atxiloturen bat ba al dagoen, epairen bat ba al dagoen...).</p> <p>Aldiz, normalean ez dugu informaziorik jasotzen horrelako zerbait gertatzen denean martxan jarri beharreko zereginen eta jarduketari buruz.</p> <p>Berririo diogu, ez dugu uste salaketa ezinbesteko elementua denik, baina ikuspegi hori onartuko bagenu ere, salaketa batek ez du aurrera egiteko aukerarik gainerako alderdiak kontzienteki artikulatzen ez badira. Hala ere, garrantzitsua da kontuan hartzea salaketa guztiak ez dutela amaiera ona izaten, maiz zaila baita gertatutakoa maila juridikoan frogatzea, eta hori gerta dadin prestatuta egon behar da; izan ere, ez daukagu justizia-eredu feministarik, ezta gutxiagorik ere. Hori oinarri hartuta, aipatu ditugun gainerako alderdiek garrantzi handiagoa hartzen dutela iruditzen zaigu.</p>

4. BLOKEKO DIAPOSITIBA- AURKEZPENAREN ERABILPEN-GIDA:

/ UNIBERTSITATEKO SEXU-INDARKERIARI LEHEN ERANTZUN BAT EMATEKO TRESNAK, ZERBITZUAK ETA ESTRATEGIAK /

BLOKE HONETAN, ORAIN ARTE HITZ EGINDAKOA TESTUINGURU JAKINETARA EKARTZEN AHALEGINDUKO GARA.

DIAPO	EDUKIA	IRUZKINA
1	Azala	Unibertsitatearen, proiektuaren eta EBren logoa zein proiektuaren kodea agertzen dira. Aurkezpena proiektua amaitu ondoren erabiltzekotan, eskertuko genuke materiala zer proiektutatik hartu den aipatzea.
2	Kasuei buruzko eztabaida: benetako kasuak, analisia	Taldeka kasuei buruz eztabaidatzen dugun bitartean atzealdean edukitzeko diapositiba.
3	Benetako kasuak: analisia	Diapositiba honetan taldeetan eztabaida pizteko eta, gero, XX. eranskinean proposatutako taulak betetzen hasteko baliagarriak izan daitezkeen zenbait galdera daude.
4	Benetako kasuak: bateratzea	Bateratze-lana egin bitartean atzealdean edukitzeko diapositiba.
5	Idea zaparrada	Diapositiba honetan unibertsitatean eskura dauzkagun baliabideak daude. Diapositiban adibide jakin batzuk ageri dira baina, noski, leku bakoitzera egokitu behar dira. Unibertsitate askok dituzte berdintasun-unitateak, ikastetxeetako batzordeak, osasun-zerbitzuak, psikologia-arretarako zerbitzuak, protokoloak eta hainbat arauketa. Garrantzitsua da, hala ere, jendea bideratzeko eremuei buruzko informaziorik ez ematea ezagutzen ez baditugu. Ez dugu ziurtzat jo behar egoki funtzionatzen dutenik. Garrantzitsua da haiek ezagutzea, ikuspegi kritikoa duten eta erabiltzaileek balioespen positiboa eman dioten jakitea eta abar.
6	Baliabide-mapa	Diapositiba honetan egiten ari garen online maparen esteka dago. Mapan, unibertsitatearenak izan gabe lagungarriak izan daitezkeen baliabideak daude. Baliabideak hala instituzionalak nola komunitarioak dira, eta batzuk kooperatibak edo ekimen pribatuak dira. Berriro ere, aholkatu aurretik baliabideak ezagutzea garrantzitsua dela azzimarratuko dugu.
7	Gidak	Kontsultarako balio dezaketen gaiari buruzko pare bat gida aholkatuko ditugu hemen. Beste behin, ez dugu gida asko-asko gomendatuko, ezagutzen ditugun pare bat baizik, formakuntza hau planifikatzeko erreferentziatzen erabili ditugunak, haietako ikuspegiekin eta ideiekin bat egiten dugulako.
8	Azken oharrak	Hemen emango ditugu azken oharrak. Gerora materiala eta ebaluazio-inkesta bidaliko dizkiegula gogoraziko dugu (hemen duzue guk erabilitako eredu baina zeuena presta dezakezue). Diapositiba honetan daude talde-ebaluazioaren abiapuntutzat planteatuko ditugun bi galderak. Galdetegi pertsonal eta anonimo bat bidaliko diegunez, ez da behar mundu guztiak parte har dezan, baina interesgarria da uneren batean formakuntzaren elementu positiboak eta negatiboak adieraz ditzaten. Hobetzeko eta, etorkizuneko formakuntzei heltze aldera, taldea haztatzeko baliagarria izango zaigu hori.
9	Ebaluazioa	Hitz egiten eta ebaluatzen dugun bitartean atzealdean edukitzeko diapositiba

